


Heptamerona
borzgarren eguna
Margarita
Nafarroakoa

Itzultzailea
Xabier Artola Zubillaga

Gainbegiratzailea
Itziar Diez de Ultzurrun
Sagalà





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MARGARITA NAFARROAKOA

heptamerona

borzgarren eguna

Borzgarren egun honetan, beren ohorea
plazeraren aitzinetik jartzen jakin ukan duten
neska eta emakumeak ditugu mintzagai; orobat,
kontrakoa egin ukan dutenak, eta bai bertze
zenbaiten lañotasuna ere.

Itzultzailea:

Xabier Artola Zubillaga

Gainbegiratzailea:

Itziar Diez de Ultzurrun Sagalà

Azala:

Dom Campistron

2025eko iraila

AITZINSOLASA

Goiza heldu zelarik, hain gosari izpiritual ona prestatu zien Oisille andereak, non aski izan baitzitzaien gorputz-izpirituak azkartzeko; eta hain artoski entzun zioten bildurik zeuden guziek, non iduri baitzitzaien sekulan ez zutela ezagutu halako prediku probetxuzkorik. Eta, azken meza deia aditu zutenean, han joan ziren denak entzunak zituzten ele sainduen kontenplazioan aritzera. Meza entzun eta apur batez promenatu ondoan, mahairat jarri ziren, egungo eguna iragan berri haietarik edozein bezain ederra izanen zela prometatuz, eta Saffredentek erran zien desira lukeela zubiaren erreparatzea bertze hilabete batez luzatuko balitz, halakoa zela, izan ere, egiten ari ziren horretan hartzen zuen plazera; baina hango abadea¹ entseatzen zen lanak ahalik eta lasterrena egin zitezen, ez baitzuen laket hainbertze jende onen artean bizitzea, eta, haiek han zirela, ez baitzen ausartzen pelegin emaztezoak usaian bezala etorraraztera. Otordua egin eta pausua hartu ondoan aldi labur batez, ohiko denbora-pasara itzuli ziren. Batbedera bere lekuan jarri zelarik pentzean, galdegin zioten Parlamenteri ea nori emanen zion hitza.

«Iduri zait —erran zuen— ezen Saffredentek jakinen duela nola eman hastapen on bat egun honi, ongi baitakusat haren begitartean ez duela batere gogorik guri negar eginarazteko».

«Net krudelak izanen zarete, ene andereok —erran zuen Saffredentek—, ez baldin bazatzaizkiote urrikaltzen kontatu behar dizuedan istorioko kordelierrari. Izan ere, aise pentsatzen ahal duzue, gure artean fraideei buruz kontatu direnetarik batzuen kariaz, ezen horrelakoak damatxo gaixoei baizik ez zaizkiela agitzen, horren eginerraz izateak egintza beldurrik gabe hasaraztera bulkatzen duelako. Baina, jakin dezazuen fraide horien irrits eroak nola itsutzen dituen eta noraino ebasten dien beldur eta zuhurtzia oro, kontatuko dizuet haietarik bati Flandesen gertatua.

¹ Zarrantzako monasterioko abade gaiztoa, liburuaren Aitzinsolasean aipatua. (I. O.)

BERROGEITA BATGARREN ISTORIOA

Eguberri gau batez, andereño bat kordelier batengana kofesatzera joan zen, eta hain penitentzia estrainioa jarri zion hark, ezen neska, ez zuenez halakorik errezibitu nahi, haren aitzinean altxatu baitzen, absoluziorik gabe; neskaren nagusi andereak, jakin zuelarik, azotarazi zuen kordelierra sukaldean, eta han igorri zuen gero, tinko-tinko estekaturik, bere guardianoarean baitara.

Marguerite Austriakoa Cambray-ra jin zen urtean, iloba Enperadorearen izenean, haren eta Errege Net Giristinoaren arteko bakeaz aritzeko², zeinaren izenean haren ama Luisa Saboiakoa baitzen han, Marguerite horren konpainian zetorren Aiguemont-eko kondesa³, konpainiako guzien artean flandestar emazteetarik ederrena izateko fama zuena. Aiguemonteko kondesa itzuli zelarik biltzar handi hartarik bere etxerat, eta heldurik Abendualdia⁴, igorri zuen baten bat kordelierren komentu baterat predikari bat bilatzera, gizon ona eta gai izanen zena predikatzeko nahiz hura eta etxeakoak oro kofesatzeko. Guardianoak lan hura egiteko gaien iduri zitzaiona hautatu zuen, hain ziren handiak Aiguemont eta Fiennes etxeetarik⁵ biltzen zituzten ongiak, eta haietarik izanki kondesa. Fraideek, etxe handien estimu ona eta atxikimendua irabazi nahi baitzituzten bertze komentu guzien gainetik, han igorri zuten predikari bat, komentukoen arteko itxurarik onenekoa, eta biziki ongi bete zuen bere eginbidea Abendualdi guzian; eta kondesa guziz kontent zegoen harekin. Eguberri gauean, kondesak bere Kreatzailea hartu nahi ukan zuen⁶, eta kofesora etorrarazi zuen. Eta, kofesioa sekretuagoa izan zedin, kapera guziz hetsi batean kofesatu ondoan, lekua utzi zion bere ohorezko damari, eta hark, bera ere kofesatu zelarik, alaba igorri zuen kofesor on haren eskuetarat. Eta, neskak erran ziolarik zekien guzia, jakin zuen aita on hark haren sekretuaren berri zerbait, eta ohikoa ez zen penitentzia bat ezartzeko gutizia eta ausartzia bildu zuen. Eta erran zion:

—Ene alaba, hain ditun handiak hire bekatuak, ezen, haiek satisfatzeko, penitentzia gisa ezartzen baitinat ene korda eraman dezanan hire gorputz net biluzaren gainean.

Neskak, ez baitzuen desobeditu nahi, erran zion:

—Emadazu, bada, ene aita, eta hutsik gabe eramanen dut.

—Ene alaba —erran zuen aita onak—, ez luken on hire eskuz egitea; beharrezkoa dun, lehenik, ene esku hauen bidez, zeinetarik hartu behar baitun absoluzioa, gerrikatzea korda hori; gero, hire bekatu guziez absolbiturik izanen haiz.

² Frantziako Nord departamenduko egungo Cambrain egindako itunaren bidez (1529) amaitu zen Frantzisko I.aren eta Karlos V.aren arteko gerra. Damen ituna esaten zaio, Marguerite Austriakoaren eta Luisa Saboiakoaren artean gauzatu baitzuten (iloba Karlos V.aren ordezkari gisa, lehena; eta seme Frantzisko I.arena, bigarrena); Margarita Nafarroakoa ere amarekin izan zen Cambrain, eta parte hartu zuen Madrilen bahiturik zeuzkaten erregearen semeak libre uzteko kondizioak negoziatzen. (I. O.)

³ Françoise Luxemburgokoa, Gavreko kondesa, Jean IV. Egmont-eko kondearen emaztea. (I. O.)

⁴ Katolikoen urte liturgikoan, abendualdia edo abendua (latinezko *adventus*-etik) esaten zaio Eguberri aurreko lau asteek osatzen duten denborari. (I. O.)

⁵ Fienneseko etxea aliaturik zegoen Luxemburgokoarekin, Mahaut Châtillon-ekoaren (Jeanne Fiennesekoaren alaba) eta Guy Luxemburgoko, Lignyko kondearen arteko ezkontzaren bitartez. (I. O.)

⁶ Komunioa, jaunartzea. (I. O.)

Neskak, negarrez, ihardetsi zion ez zuela halakorik deus eginen.

—Nolaz! —erran zuen kofesorak—, heretiko bat ote haiz, bada, Jainkoak eta gure Eliza ama sailduak ezarri penitentziak errefusatzeko?

—Elizak manatzen duen gisan baliatzen naiz kofesioaz —erran zuen neskak—, eta guziz prest nauzu penitentzia bete eta absoluzioa hartzeko, baina ez ditut nehola ere nahi zure eskuak ene gainean; hala, bada, errefusatzen dut zure penitentzia.

—Orduan —erran zuen kofesorak—, ezin dinat absoluzioa eman.

Zutitu zen neska haren aitzinetik, kontzientzia net durduzaturik zuela; izan ere, hain zen gaztea, ezen huts egin ote zuen beldur baitzen, aita onari egina zion errefusaren kariaz. Mezaren hondarrean, Aiguemonteko kondesak *corpus Dominia*⁷ hartu zuelarik, ohorezko damak, gero hartu nahi baitzuen, galdetu zion alabari ea prest ote zen. Alabak, negarrez, erran zion ez zegoela kofesaturik.

—Eta zertan aritu haiz horren luze predikari horrekin? —erran zuen amak.

—Deusetan ez —erran zuen alabak—, zeren, ezarri didan penitentzia errefusatu dudanez, errefusatu baitit absoluzioa ere.

Amak zuhurki ikertu zuen, eta aita onak alabari ezarri nahi zion penitentzia molde arraro haren berri jakin zuen; eta, bertze batekin kofesarazi ondoan, elkarrekin hartu zuten sakramentua ama-alabek. Eta, kondesa elizatik itzuli zelarik, ohorezko dama predikariaz pleinu joan zitzaion, eta hura ere biziki haserre eta estonaturik gelditu zen, hain zen ona fraideaz zuen iritzia. Haserre izanik ere, ordea, gogotik egin zuen irri, penitentiaren berritasuna ikusirik. Baina irriak ez zuen orobat eragotzi fraidea arrastatu eta sukaldean zurratzea, non, makilukaldiz, aitortu baitzuen egia. Eta igorri zuen gero guardianoarenganat, esku-oinak estekaturik, otoiztuz bertze aldi batez jende hobia bidal ziezaion Jainkoaren hitza predikatzerara.

«Hara, andereok, hain etxe ohoragarri batean ez baldin badira beldur izan beren erokeriak agerian jartzeko, zer ez dute eginen fraide horiek leku pobreetan, non ibiltzen baitira usaian sos biltzen, non hain errazki presentatzen baitzaizkie okasioak, ezen mirakulua baita handik ateratzea eskandalurik eman gabe. Hori horrela, otoi galdatzen dizuet, ene andereok, zuen estimu txarra gupida bihur dezazuen; eta pentsa ezazue ezen kordelierrak itsutzen dituenak⁸ ez dituela emaztekiak salbuetsiko, hartarako okasiorik kausituz gero».

«Alafede —erran zuen Oisillek—, horra kordelier net gaizto bat!: erlijio gizon, apez eta predikari izan, eta halako bilaukeriaz baliatzea, Eguberri gauez, eta elizan eta kofesioaren mantopean; bekatua areagotzen duten goiti-beheitiak denak».

«Zuri entzunik —erran zuen Hircanek—, badirudi kordelierrekin aingeruak edo bertze nornahi baino zuhurragoak izan behar dutela. Eta entzun dituzue hainbertze etsenplu, ezen pentsatuko baituzue anitzek makurragoak direla; baina, ene iduriz, kordelier hari aise barkatzen ahal zaio, han baitzen bakar-bakarrik, gauez eta zerraturik neska eder batekin».

«Hala da —erran zuen Oisillek—, baina Eguberri gaua zen».

⁷ Komunioa. (I. O.)

⁸ Deabrua, inondik ere. (I. O.)

«Horrek du areagotzen, bada, haren desenkusa —erran zuen Simontaultek—, zeren, Josefen lekuan egonik birjina baten ondoan, entseatu nahi baitzuen haur ttipi bat egitera, zinez eta minez jokatzeko Natibitatearen misterioa».

«Egiazki —erran zuen Parlamentek—, Joseph eta Andredena Mariarengan pentsatu ukan balu, ez zuen halako desira makurrik ukanen. Haatik, borondate gaiztoko gizona zen, ikusirik ezen okasiorik ttipienaz ere hain makurkeria handia egin zuela».

«Iduri zait —erran zuen Oisillek— ezen kondesak hain gaztigu bikaina ezarri ziola, non haren kideek hartzen ahal baitzuten etsenplutzat».

«Baina ikusteko dago —erran zuen Nomerfidek— ea ongi egin ote zuen eskandalu emanek molde hartan hurko lagunari, ez ote zatekeen hobe haren hobenak emeki ikusaraztea ezen ez molde hartan zabaltzea hurko lagunak eginikoa».

«Ene iduriz —erran zuen Geburonek—, horrela egin behar zuen, zeren manatua baita gure hurko laguna zentzaraztea haren eta gure arteko zer bat dela⁹, bertze nehoi edo Elizari erran aitzin. Izan ere, pertsona bat behin ahalkearaziz gero, nekez bada nekez zentzatuko da nehoiz, laidoaren beldurak kontzientziak bezainbat jende hastantzen baitu bekatutik».

«Uste dut —erran zuen Parlamentek— ezen Ebanjelioak dioena jende orori aplikatu behar geniokeela, salbu hura predikatuagatik kontrakoa egiten dutenei, ez baita batere beldurrik ukan behar jende oro eskandalizatzen dutenak eskandalizatzeko. Eta iduri zait meritu handia duela halakoak diren bezala ezagutzero emateak, ez diezaguten doblete bat sar¹⁰ errubi on baten orde. Baina, nori emanen dio hitza Saffredentek?».

«Zuk galdatzen duzunez, zuhauri emanen dizut —erran zuen Saffredentek—, nor den nehork ez bailizuke ukatu behar».

«Ematen didazunez, bada, kontatuko dizuet istorio bat, nihaur lekuko izan nintzena. Beti entzun ukan dut ezen bertutea, izaki ahul eta enul baten baitan bizi denean, haren etsai indartsu eta boteretsua oldarka duela, orduan nehoiz baino laudagarriagoa dela, eta areago azaltzen dela hura den bezala. Izan ere, indartsua indartsuagandik defendatzen baldin bada, ez da zerbait miragarria; baina, ahula nagusitzen delarik, jende orok du goretsiko. Ongi ezagutzen ditudanez aipatu nahi ditudan pertsonak, iduri zait bertutearen kontra jokatu nukeela —ardura ikusi ukan baitut hura hain beztimenda eskasaren pean, ezen nehork ere ez baitzuen kontuan hartzen— ez banintz hain egitate onestak egin zituen emazteki hartaz mintzatuko; horrek nau, bada, behartzen zuei kontatzera».

⁹ Ebanjeliotik (Mateo 18,15): «Zure senide batek bekatu egiten badu, zoaz berarengana eta zentzarazi bakarrean». (I. O.)

¹⁰ Harribitxi faltsua, beirazko bi piezaz osatua. (I. O.)

BERROGEITA BIGARREN ISTORIOA

Printze gazte batek atxikimendua zion neska bati, baina, etxe apal eta pobreakoa bazen ere, ez zuen harengandik sekulan erdietsi iguriki zuenik, eginahalak eginagatik. Horregatik, printze hark, bazekienez neskaren bertute eta onestasunaren berri, alde bat utzi zuen bere eginahala, biziki estimatu zuen neska bere mende osoan eta ongia franko egin zion, eta bere zerbitzari batekin ezkonarazi zuen.

Touraine-ko¹¹ hiririk ederrenetarik batean, etxe handi eta oneko jaun bat bizi zen, han berean hazia hagitz gaztea zenetik. Printze gazte haren perfekzio, dohain, edertasun eta bertute handiez ez dizuetsu deus erranen, ezpada denbora hartan ez zela beraren parekorik kausitzen¹². Hamabortz urte zituela, plazer handiagoa hartzen zuen lasterka eta ihizian ibiltzen ezen ez dama ederrei beha egoten. Egun batez, eliza batean zela, egin zion so neska gazte bati, zeina behiala, haurrean, hazia izan baitzen printzea bizi zen gazteluan. Baina neskaren ama hil zelarik, aita berriz ezkondu zen, eta horregatik Poictoura joan zen neska, anaiarekin. Neska horrek Françoise zuen izena, eta bazuen ahizpa bastart bat, aita anitz maite zuena, zeina printze gaztearen edarizaindegiko sommelier batekin esposatu baitzuen, eta hala erdietsi zuen hark bere etxeko bertze nehor bakoitzari kondizio hobea. Aita hil zen, eta hiri on hartan zeukana utzi zion ondoriotasun partetzat François-eri; horregatik, aita hil ondoan, ontasunak zeuzkan lekura erretiratu zen neska. Eta, hamasei urteko eta ezkongai zenez, ez zuen etxean bakarrik egon nahi, eta ahizpa sommelieraren etxera joan zen arrotz¹³. Printze gaztea, ikusiz neska hura aski ederra zela beltzaran kolore argiko bat izateko, eta zituen dohainak haren kondizioari zegozkionak baino areagokoak zirela, dama edo printzesa bat baitzirudien gehiago burges bat baino, beha gelditu zitzaion luzaz. Eta, sekulan nehor maitatu gabea zenez, plazer ez ohiko bat sentitu zuen bihotzean. Ganberarat itzuli zelarik, elizan ikusi zuen neska haren ikertzen ibili zen, eta oroitu zuen behiala, bera gaztea zela, jina zela hura gaztelurat arrebarengana panpinekin dostetan ibiltzera¹⁴, eta neskaren etorreraren berri eman zion hari. Arrebak neskaren xerka igorri zuen norbait, eta biziki ongi errezibitu zuen, sarri etor zedin galdatuz. Hala zuen egiten hark, ezteiak edo bertzelako elkarretaratzeak zirelarik, eta han ikusten zuen printze gazteak, hain gogo onez, ezen biziki maitatzea pentsatu baitzuen. Eta, bazekienez etxe apal eta pobreakoa zela, iguriki zuen ezen aise erdietsiko zuela galdatzen ziona. Baina, ez zuenez harekin mintzatzeko biderik, bere ganberaren zerbitzuko zaldun bat bidali zuen jokoa egin ziezaion, eta neskak —zuhurra zenez, eta Jainkoaren beldur— erran zion ezen ez zuela sinesten haren nagusia, halako printze eder eta onesta izanki, bera bezain itsusia zen bati beha zegokeenik; izan ere, hain emazteki ederrak ukanik bizi zen gazteluan, ez zuela neholako beharrik hirian bila ibiltzeko, eta uste zuela zalduna bere gisa ari

¹¹ Turena, Frantziako Erresumako eskualde historikoa, egungo Indre eta Loira departamenduan. (I. O.)

¹² Laudorio horretan Frantzisko printze gaztearen aipua ikusten da argi (Margaritaren anaia, gero errege izango zena). Aipatutako Turenako hiria, berriz, Amboise da, non bizi izan baitziren anai-arrebok beren ama Luisa Savoiakoarekin 1508ra arte. (I. O.)

¹³ Hots, apopilo joan zen sommelierarekin ezkonduko ahizparenera. (I. O.)

¹⁴ Margaritarekin, noski; Parlamentek esan digu, istorioa kontatzen hasterakoan, ongi ezagutzen zituela protagonistak. (I. O.)

zitziola, ezen ez nagusiaren manuz. Printze gazteak arrapostu hura entzun zuelarik, Amodiok, zeina tinkiago atxikitzen baita zenbatenaz erresistentzia handiagoa kausitu, bere eginbidean ordu arte baino sutsuago jarraiki zekion bulkatu zuen. Eta eskribitu zion printzeak gutun bat, otoiztuz osoki sinets zezan zaldun hark erranen ziona. Neskak, biziki ongi baitzekien irakurtzen eta eskribitzen, burutik buru irakurri zuen letra, baina, zaldunak egin otoiak otoi, ez zuen nehoiz ihardetsi nahi ukan, erranez ez zegokiola bera bezalako pertsona apal bati halako printze bati eskribitzea, baina otoizten zuela ez zezan hain ergeltzat har nola sinesteko hark halako oniritzian zeukakeenik, beraganako halako amodioa ukaiteko. Orobat, ezen makur zebilela pentsatzen baldin bazuen kondizio apalekoa zelako nahi bezala ukanen zuela, beraren bihotza ez zela giristino herri osoko printzesarik handienarena baino gutiago onesta, eta ez zuela tresorik ezagutzen munduan onestasunaren eta kontzientziaren parekorik, eta otoizten zuela ez ziezaion eragotz tresor hori begira zezan bere mende osoan, hilagatik ere ez baitzuen bere iritzia kanbiatuko. Printze gazteari ez zitzaion laket izan arrapostu hori; hala ere, biziki maite zuen, eta huts egin gabe ezarrarazten zuen bere kadira neska mezara joaten zen elizan; eta, zerbitzuak iraun bitartean, begiak beti iduri hari beha ukaiten zituen. Baina, hautematen zuelarik, neska lekuz aldatu eta bertze kapera baterat joaten zen, ez printzea ikustetik ihes egiteko, ez baitzatekeen kreatura zentzuzko bat hari begira plazerik hartuko ez balu, ezpada ikusiko zuen beldur zelako, ez baitzuen bere burua gai ikusten ohorez edo ezkontzaz maitatua izateko, eta ez baitzuen nahi, bertzalde, erokeriaz eta plazer hutsez maitatua izan. Eta, ikusi zuelarik ezen, elizako edozein lekutan jartzen zela ere, han ondoan jartzen zitziola printzea meza entzutera, ez zuen gehiago joan nahi ukan eliza hartarat, eta ahalik eta urrunen zegoen bertze baterat joaten zen egunero. Eta ezteiak-edo ospatzen baldin baziren gazteluan, ez zuen joan nahi ukaiten gehiago —printzearen arrebak maiz haren bila nehor igorriagatik—, eritasunen baten estakuruz. Printzeak, ikusiz ezin zela harekin mintzatu, sommelierrari galdatu zion laguntza, eta ontasun handiak prometatutako zizkion afera hartan laguntzen baldin bazuen; sommelierrak gogo onez eskaini zuen bere burua, nagusiari laket izateko bezainbat iguriki zuen fruituagatik. Eta egunero kontatzen zion printzeari neskak egin eta erraten zuena, eta printzeak hura ikusten ahal zuen okasioak ekiditen zituela hark, oroz gain. Hala, harekin aiseki solastatzeko zuen gogo handiak bide eragileago bat bilarazi zion. Eta, egun batez, han joan zen bere behor handiak harturik —eginbide hartan trebatzen hasia baitzen— hiriko plaza handi baterat, sommelierraren etxe aitzinera, non bizi baitzen Françoise. Eta hainbat laster eta jauzi egin ondoan, neskak ongi ikusten ahal zituen moldean, zalditik erortzen utzi zuen bere burua istil batean, baina, hain indar gutiz, ezen ez baitzuen batere minik hartu; baina, hori bai, aski pleinitu zen eta galdatu zuen ea ez ote zen inguruan etxerik beztimendak kanbiatzeko. Nork bere etxea eskaini zuen, baina norbaitek erran zuen sommelierrarena zegoela hurren eta hura zela plantakoena; hala, hura bera hautatu zuten denen artean. Ganbera ongi apaindua zela kausitu zuen, eta atorra hutsik gelditu zen, jauntziak oro satsuturik baitzituen lokatzez; eta ohatze batean sartu zen. Eta ikusi zuenean jendeak, zalduna salbu, joanak zirela berarendako jauntzi bila, etxeko jaun-andere nagusiak deitu eta galdetu zion ea Françoise non zen. Neke handiz kausitu zuten, zeren, ez ahal zuen printze gaztea etxean sartzen ikusi, non hango lekuri sekretuenean gordetzera joan baitzen. Nolanahi ere, ahizpak kausitu zuen, eta otoiztu zuen ez zedin beldur izan halako printze onest eta bertutetsuarekin mintzatzeko.

—Nolaz, amatzat haudan ene ahizpa horrek —erran zuen Françoisek—, nolaz galdatzen didan gizon gazte horrekin mintza nadin, ongi jakinik ezen nik ezin dudala ez jakin hark zer nahi duen?

Baina hainbertze erasia eta bakarrik utziko ez zuelako promes egin zion ahizpak, ezen harekin joan baitzen, hain begitarte zurpail eta deseginez, non irritsa baino gehiago urrikaria sortzeko

moldean baitzen. Printze gazteak, neska ohatzetik hurbil ikusi zuelarik, dardaran eta hotz zeukan eskua hartu eta erran zion:

—Françoise, uste dun hain gizon gaiztoa naizela, hain arraro eta krudela, ezen emaztekiak jaten baititut behatu soilez? Zergatik dion halako beldur handia hire ohorea eta onginahia baizik nahi ez duen honi? Ongi dakin ezen ahal ukan dudan leku guzietan hi ikustera eta hirekin mintzatzeraz entseatu naizela, eta ez dudala erdietsi. Eta, despit handiagoa egiteagatik, ihes egin ukan didan mezan-eta ikusten ohi hindudan lekuetarik, ez nezan ukan ikusiaren bidezko kontentamendurik ere, hitzaren bidezkoa ez neukan ber gisan. Baina horrek denak ez din deusetarako balio ukan, nik ez baitut amore eman hona etortzeko, ikusi ahal ukan dunan bezala; eta lepoa hausteko perilean izan naun, nahitara erortzen utziz zaldirik, hirekin aiseki solastatu ahal izateko. Hortakotz, arrenez galdatzen dinat, Françoise, aizina erdietsi dudanez orain hain neke handiz, ez dadin ezdeusetako izan, eta ene amodio handiaren bidez erdietsi ahal ukan dezadan hirea.

Eta, ihardespenaren beha luzaz egon ondoan, ikusiz neskak negar xortak zituela begietan eta beheiti so zegoela, beregana erakarriz ahal ukan zuen guzia, besarkatu eta musukatu egin nahi ukan zuen. Baina neskak erran zion:

—Ez, ene jauna, ez; bila zabiltzan hori ezinezkoa da, zeren, zure ondoan zizare bat baldin banaiz ere, hainbertze maite dut ene ohorea, ezen nahiago bainuke hil hura murriztea baino, mundu honetan den edozein plazer dela ere. Eta hona sartzen ikusi zaituzten horiei diedan beldurrak —egia honetaz duda eginen ote duten— sortzen dit ikara eta dardara hau. Eta, laket zaizunez eni mintzatzeko ohore hau egitea, barkatuko didazu orobat ene ohoreak manatu bezala ihardesten badizut. Ez nauzu horren ergela, jauna, ez nago horren itsuturik ez ikusteko eta ez ezagutzeko Jainkoak zuregan ezarri dituen edertasun-dohainak, eta ez hartzeko munduko emakumerik dohatsuentzat halako printze baten amodio-gorputzak ukanen lituzkeen hura. Baina zertarako dut nik hori guzia, ez baita ez enetako ez ene moldeko emakume batendako, eta halakorik desiratzea soilik guzizko erokeria balitzateke enetako? Zein arrazoirien kariaz pentsatzen ahal dut jo duzula enegana, ez baldin bada zure etxeko emazteak —zeinak maite baitituzu, baldin edertasuna eta grazia maite badituzu— hain direla bertutetsu, non ez baitzara ausartzen haiei galdatzen, ez eta haiengandik igurikitzen ere ene kondizioaren ttipitasunak enegandik igurikiarazten dizuna? Eta segur naiz ezen, ni bezalakoengandik erdietsiko zenukeelarik galdatzen duzun hori, aitzakia zenukeela zure amorantearekin bi oren gehiagorik elestatzeko, ahulagoen kaltetan erdietsiak dituzun garaitien berri emanez hari. Baina laket izanen zaizu pentsatzea, ene jauna, ez naizela molde horretakoa. Zure etxean hazia nauzu, eta han dut ikasi zer den maitatzea: ene aita-amak zerbitzari on izan dituzu. Horregatik, Jainkoak ez nauenez printzesa egin zurekin esposatzeko, ez eta amorante eta maitatzaile izateko kondiziokoa ere, plazer ukanen duzu ez ni ezartzea gaizo dohakabeen mailan, giristino herriko printzerik dohatsuentzat estimatzen eta nahi zaitudanez. Eta, zure denbora-pasarako ene kondizioko emaztekiak nahi badituzu, aski kausituko duzu hiri honetan, ni baino ederragoak konparaziorik gabe, eta ez dizutenak hainbertze nekerik emanen otoizka ibiltzen. Zaude, beraz, beren ohorea erosiz plazer emanen diezun haiekin, eta ez neke gehiagorik har bere burua baino gehiago maite zaituen honekin. Izan ere, gertatuko balitz Jainkoak zure bizia edo enea gaur galdatzea, ongi uros nintzateke enea eskainiz zurea salbatzeko, ez baita amore falta zure presentziatik ihes eginarazten didana, ezpada goiz dela bi-bion kontzientzian hainbertze ukaiteko; maiteago baitut ene ohorea ene bizia baino. Zure grazian iraunen dut, plazer baduzu, ene jauna, eta ene mende guzian eginen diot otoitz Jainkoari zure joritasunaren eta osasunaren fabore. Egia da ezen egiten didazun ohore honek estimatuago eginen nauela ene kidekoen artean, zeren, zu ikusi ondoren, ene kondizioko zein gizoni behatu nahi

ukanen diot nik? Hala, ene bihotzak libre iraunen du, ezpada Jainkoari, Zeinaren baitan egon nahi baitut betikoz, zure fabore otoitz egitetik, bertze zerbitzurik ezin ukanen baitizut nehoiz egin.

Arrapostu onest horren aitzinean, eta ez izanagatik desira zuena, printze gazteak ezin zuen estimatzen zuena baino gutiago estimatu neska hura. Eta eginahalak egin zituen hark sinets zezan ez zuela sekulan bera ez bertze emazterik maitatuko; baina hain zen zuhurra neska, ezen ez baitzen sartzen ahal haren enteleguan halako zentzugaberik. Solas haietan zirela, eta behin eta berriz gaztigatu bazioten ere jauntziak helduak zirela gaztelutik, hain zen laket eta pozik, ezen lo zegoela errateko manatu baitzuen, harik eta afaltzeko tenorea izan zen arte, ez baitzen ausartu amari huts egiten, munduko damarik zuhurrenetarik bat zen eta. Horrela partitu zen gizon gaztea bere sommelierraren etxerat, neska haren onestasuna nehoiz baino gehiago estimatzen zuela. Eta ardura mintzatzen zitzaion hartaz zaldunari, ber ganberan egiten baitzuen lo, eta hark, pentsatuz amodioak baino areago egiten ohi dutela sosek, aholkatu zion eskain ziezaion neskari diru kopuru egoki bat, bere desiretara apal zekion. Printze gazteak bere plazer ttipietarako baizik ez zeukan diru apur bat, ama baitzuen diruzain, eta hura hartu zuen, maileguz bildu ahal ukan zuen guziarekin, eta bortzehun ezkutuko suma osatu, eta neskari igorri zion zaldunarekin, opinioz bertze egin zezan galdatuz. Baina neskak, presenta ikusi zuelarik, erran zion zaldunari:

—Arren otoi galdatzen dizut erran diezaiozun ene jaunari ezen hain naizela bihotz onest eta onekoa, non, manatzen didana obeditu beharko banu, haren baitan diren edertasun-dohainek bentzutua bainindukete engoitik; baina, haiek ene ohorearen kontra ahalik ukan ez duten lekuan, munduko diru orok ere ez du ukanen, eta, hortaz, itzuli egingen diozu, maiteago baitut pobre eta onest izatea desira ahal nituzkeen ontasunak oro baino.

Zaldunak, zorroztasun hura ikusiz, pentsatu zuen emazteki hura gaitzez erdietsi beharra zegoela, eta bere nagusiaren autoritate eta botereaz mehatxatu zuen. Baina neskak, irriz, erran zion:

—Hura ezagutzen ez duketenak beldurtuko dituzu horrela, nik ongi baitakit zuhurra eta bertutetsua dela guziz, eta halako eleak ez direla harenak; eta segur naiz gaitzetsiko zaituela, konta diezaiozunean. Baina, diozun moldekoka balitz ere, ez litzateke tormenturik ez heriorik opinioz aldarazten ahal nindukeenik; zeren, erran dizudan bezala, amodioak ez baldin badu ene bihotza plegatu, nehoi eman lekioken ezein gaitz edo ongik ere ez ninduke plegaraziko nagoen honetarik.

Zaldunak, zeinak hitzeman baitzion nagusiari neska erdietsiko ziola, arrapostu hura eraman zion despit handi batez, eta gogarazi nahi ukan zuen moldeak oro erabiliz jarrai zezan, erranez ez zela batere ohoretsua berarendako halako emazteki bat erdiesteko gai ez izatea. Printze gaztea, ez baitzuen nehondik ere onestasunaren arabera ez bertze molderik erabili nahi, eta beldur zenez, orobat, harrabotsa zabaldu eta, amak jakinik, biziki haserretuko ote zitzaion, ez zen deus egitera ausartu, harik eta zaldunak proposatu zion arte hain bide erraza, non pentsatu baitzuen neska bereganatua zuela jadanik. Eta, hura obratzeko, sommelierrarekin mintzatu zen, zeinak, nagusia manera oroz zerbitzatzera deliberaturik, galdatu baitzien egun batez emazteari eta koinatari bisitan joan zitezen oihanetik hurbil zeuzkaten mahastietarat, mahatsa biltzeko sasoia baitzen, eta haiek hitzeman zioten hala egingen zutela. Eguna heldu zelarik, sommelierrak jakinarazi zion printzeari, eta hura zaldunarekin bakarrik joatera deliberatu zen; eta mando-mula isilean prestatu zuen, tenorea izan orduko partitzeko. Baina nahi ukan zuen Jainkoak egun hartan amak munduko gabineterik ederrena apailatzea, eta han zituen berekin, laguntzeko, seme-alaba guziak. Eta han entretenitu zen printze gazte hura, harik eta hitzeman orena iragan zen arte. Eta ezin izan zen sommelierrarengana agertu, zeinak ekarria baitzuen koinata etxe hartara bere gibelean, zamalazpitan, emazteari eri zegoelako itxurak eginaraziz; halako maneran, non zaldi gaineen zirela

jin baitzitzaien erranez bera ezin izanen zela joan. Eta sommelierrak, ohartu zelarik joana zela printzeak agertu behar zuen tenorea, erran zion koinatari:

—Uste dinat itzul gaitezkeela hirirat.

—Eta zerk eragozten digu, bada? —erran zuen Françoissek.

—Jaunaren beha bainengoen —erran zuen sommelierrak—, prometatutako zidanen jinen zela.

Koinatak gaiztakeria hura aditu zuenean, erran zion:

—Ez egon haren beha, ene anaia, ongi baitakit egun bederen ez dela nehola ere agertuko.

Gizonak sinetsi eta etxera eraman zuen. Eta, etxera heldu zelarik, haserre bizia erakutsi zion koinatuari, erranez deabruaren sehia zela, manatzen ziotena baino gehiago egiten zuela. Segur baitzen hura dena koinatuak eta zaldunak asmatua zela, eta ez printze gazteak, zeinari koinatuak nahiago baitzizkion sosak atera, haren erokerietan lagunduz, zerbitzari onaren lana behar bezala egin baino; eta, ongi ezagutu zuenez nolakoa zen, ez zatekeen sekulan berriz gelditu haren etxean. Hala, anaiaren bila igorri zuen norbait bere herrira eraman zezan, eta ahizparen etxea utzi zuen berehala. Sommelierra, bere eginbidean huts eginik, gaztelurat joan zen, jakiteko ea zergatik ez zen agertu printze gaztea; eta, ez ahal zen harat heldu, han kausitu zuen mando-mularen gainean, konfiantzazko zaldunarekin bakarrik, eta galdetu zion:

—Eta, oraino han da neska?

Sommelierrak egin zuen guzia kontatu zion. Printze gaztea biziki samurtu zen ikusirik bere deliberatzen huts egin zuela, hura baitzuen, bere ustez, entseatzen ahal zuen azken-azken bidea. Eta, ikusiz ez zegoela erremediorik batere, indar guziz hasi zen neskaren bila, eta ihes egin ezin zuen konpainia batean kausitu zuen; haserre bizian mintzatu zitzaion zion zorrotasunagatik eta koinatuaren etxea utzi nahi ukaiteagatik. Neskak erran zion ez zuela sekulan kausitu beretako konpainia makurragorik ez eta perilosagorik ere, baina bera, printzea, ongi zorretan zela harekin, ikusirik ez zuela zerbitzatzeko soilik gorputzez eta ontasunez, ezpada orobat arimaz eta kontzientziaz ere. Printzeak, ohartu zelarik ez zegoela bertze zereginik, ez gehiago akuilatzea deliberatu zuen, eta estimu onean ukan zuen bere mende guzian. Printze haren sehi batek, neskaren onestasuna ikusiz, esposatu nahi ukan zuen, baina hura ez zen nehoiz akort izan printze gaztearen nahirik eta baimendurik gabe, hari atxikia baitzitzaien guziz; eta hala jakinarazi zion. Ezkontza printzearen borondate onez egin zen, eta hala bizi izan zen neska fama onean, bere mende guzian. Eta printze gazteak mesede handiak egin zizkion.

«Zer erranen dugu orain, ene andereok? Hain ote ditugu makur gure bihotzak, non gure zerbitzariak nagusi baititugu bihurtzen, ikusirik neska hori ez zuela bentzutu ez amodioak, ez eta tormentuak? Otoi galdatzen dizuet ezen, haren etsenpluari jarraikiz, garai ditzagun guharen buruak, hori baita erdiesten ahal dugun garaitiarik handiena».

«Makur bakarra dakusat nik —erran zuen Oisillek—, eta da neska horren egitate bertutetsuok ez zirela historialarien sasoian gertatu, zeren beren Lukrezia hura¹⁵ hainbertze laudatu zuten haiek hura kolkoan utzi eta honako neska honetaz eskribitu baitzuketela luze-zabal».

¹⁵ Erromatarren garaiko Lukrezia heroia, kastitatearen eta emakumezkoaren bertutearen ikur tradizionala, zeinak, kondairaren arabera, bere buruaz beste egin baitzuen Sexto Tarkinio erregearen semeetako batek bortxatu ondoren. (I. O.)

«Hain handiak kausitzen ditut nik egitateok, ezen ezin baititut sinetsi ere —erran zuen Hircanek—, non ez den egia errateko egina dugun zin handi horrengatik, ez baitut uste haren bertutea zuk itxuratzen duzun moldekoa datekeenik; izan ere, eriak franko ikusi ukan ditugu jaki on eta osasungarriak uzten, gohaindurik, eta txarrak eta kaltekorrak jaten. Orobat liteke neska hark bere kondizioko zaldunen bat ukaitea, aitoren seme oro mespretxatzera zeramana».

Baina Parlamentek ihardetsi zien hitz haiei erranez neska haren biziak eta azkenak erakusten zuela ez zuela sekulan ukan ezein gizon bizirendako jaidurarik, ezpada bere bizia baino gehiago —baina ez bere ohorea baino gehiago— maite zuen harendako.

«Ken ezazu iritzi hori burutik —erran zuen Saffredentek—, eta konpreni ezazu nondik etorria den *ohore* termino hori emaztekiez den bezainbatean, zeren, agian, hartaz hainbertze mintzatzen diren emakume haiek ez baitakikete xuxen nondik norat sortua den. Jakizue ezen, hatsarrean, gaiztakeria ez zenean hagitz handia gizonen artean, hain zela amodioa xalo eta sendoa, non ez baitzen lekurik disimulatzeke, eta hobekien maite zuena zela goretsiena. Baina, bekatuak eta zekenkeriak bereganatu zituztelarik ohore-bihotzak, kanporat kasatu zituzten handik Jainkoa eta amodioa, eta, haien orde, norberaganako maitetasuna, hipokrisia eta itxurakeria ezarri. Eta, ikusiz damek beren bihotzetan elikaturik egiazko amodioaren bertute hori, eta *hipokrisia* hitza hastiagarria zela gizonendako, *ohore* izengoitia eman zioten, eta, hala, ohorezko amodiorik eduki ezin zuten haiek erraten zuten ohoreak debekatzen ziela. Eta hain lege gaiztoa ezarri zuten manera hartan, non perfekzioz maitatzen duten emazteak ere disimuluan ibiltzen ohi baitira, bertutea dena biziotsat hartuz; baina entelegu ona eta zentzuzko jujamendua duten haiek ez dira sekulan erortzen makur horietan, ongi bereizten baitute ilunpea argitik, eta ongi baitakite beren egiazko ohorea bihotzaren onestasuna adieraztean datzala, zeinak amodioz baizik ez baitu bizi behar, disimuluaren bizioaz ohoratzen ibili gabe».

«Nolanahi den —erran zuen Dagoucinek—, erraten ohi da amodiorik sekretuena dela laudagarriena».

«Bai —erran zuen Simontaultek—, sekretu, gaitz irizten ahal diotenen begien aitzinean, baina argi eta ezagun, hunkitzen dituen bi pertsonendako bederen».

«Horrela iduri zait eni ere —erran zuen Dagoucinek—; baina hobe litzateke bietarik batek ez jakitea heren batek jakitea baino, eta uste dut emakume haren amodioa hainbatenaz eta handiagoa zela, zenbatenaz eta gordeagoan baitzuen».

«Nolanahi ere den —erran zuen Longarinek—, estimatu beharra dago bertutea, eta handiena norbere bihotza garaitzean datza. Eta, ikusirik neska hark zituen okasioak bere kontzientzia-ohoreak bazter uzteko, eta ukan zuen bertutea bere bihotz-borondateak eta bere burua baino maiteago zuen hura garaitzeko, ukan zituen okasio eta bide on haiek guziak ukanki, nik diot izendatzen ahal genukeela emazteki indartsu¹⁶. Eta, estimatzen duzuen ez norbere burua mortifikatzearen bertutearen handia, diot ezen jaun hura are laudagarriagoa zela neska baino, ikusiz nolako amodioa zion, eta hura bereganatzeko zituen boterea, okasioak eta bideak; eta, halarik ere, ez zuen nehola ere ofentsatu nahi ukan egiazko amodioaren araua —zeinak berdintzen baititu printzea eta pobrea—, onestasunak haizu uzten dituen bideak baizik ez erabiliz».

«Franko dira horrela jokatu ez zuketanak —erran zuen Hircanek».

¹⁶ Bibliako aipamena: Esaera Zaharrak 31, 10-31. (I. O.)

«Are estimagarriagoa —erran zuen Longarinek—, bentzutu zuelako gizonen artean ohikoa den gaiztakeria, zeren dohatsua baita makurra egiten ahal duelarik egiten ez duena¹⁷».

«Horri buruz —erran zuen Geburonek—, oroitarazi didazu emazteki bat, beldur handiagoa ziona gizonen begiak ofentsatzeari ezen ez Jainkoari, bere ohoreari eta amodioari».

«Orduan, otoi galdatzen dizut konta diezaguzun —erran zuen Parlamentek—, eta hitza ematen dizut horretarako».

«Bada Jainkorik batere ez duen jendea —erran zuen Geburonek—, edo, ezeinengan sinesten baldin badute ere, hain gauza urruntzat daukate berengandik, non ezin baitituzte ez ikusi ez entzun ere egiten dituzten obra txarrak; eta, ikusirik ere, uste baitute antsikabe izanen zaiela, ez dituela batere punituko, hemen beheko gauzez ezaxola balitz bezala. Eta halako iritzia zuen, hain xuxen, andereño batek, zeinaren izena kanbiatu egingen baitut hemen haren leinuaren ohoreagatik, eta Jambicque izendatuko dut. Ardura erraten zuen ezen Jainkoarekin baizik aritzen ez zen pertsona dohatsua zela guziz, baldin gizonen aitzinean ohorea ongi begiratzen ahal bazuen funtsean. Baina ikusiko duzue, ene andereok: ez haren zuhurtziak, ez eta haren hipokrisiak ere bermatu zioten bere sekretua agerian ez gelditzea, haren istorioa entzunik —zeina burutik buru kontatuko baitizuet, salbu leku eta pertsonen izenak, haiek kanbiatu egingen baititut— ikusiko duzuen bezala».

¹⁷ Bibliako aipamena: «Nor da Jainkoaren legea hautsi ahal izan eta hautsi ez duena? Gaizki jokatu ahal izan eta egin ez duena?» (Ben Sirak 31, 10). (I. O.)

BERROGEITA HIRUGARREN ISTORIOA

Jambicquek, maiteago zuenez munduko loria bere kontzientzia baino, zen ez bezalakoa agertu nahi ukaiten zuen jende aitzinean; baina haren adiskide eta amoranteak, emakumearen hipokrisia klera marratxo baten bidez deskubritu zuelarik, jende orori eman zion hark hain neke handiz gordetzen zuen gaiztakeriaren berri.

Gaztelu biziki eder batean, printzesa handi eta burupe handiko bat bizi zen. Bazuen, bere konpainian, Jambicque izeneko andereño bat, arras ausarta, zeinak hain zeukan nagusi anderea enganaturik, ezen hark ez baitzuen deus ere eginen andereño horren aholkurik gabe, denbora hartako damarik zuhur eta bertutetsuentzat baitzeukan. Jambicque horrek hain zuen gaitzesten amodio eroa, non, zaldunen bat beraren lagunetarik batez amorosturik zebilela ikusten baldin bazuen, net garrazki egiten baitzion erantzuki, eta hain erreport txarrak helarazten zizkion nagusi andereari, ezen ardura larderiatu egiten baitzituen hark; eta, hala, lagunek maitasuna baino gehiago beldurra zioten. Eta, berari zenaz bezainbatean, ez zen sekulan ezein gizonekin solastatzen, ezpada ozen eta guziz ozarki, eta, hala, amodio ororen etsai izatearen fama zuen, bihotzean zeukana guziz kontrakoa baldin bazen ere. Izan ere, bazen zaldun bat nagusi anderearen zerbitzuko¹⁸, zeinaz hain zegoen amorosturik, non ezin baitzuen gehiago jasan. Ordea, arras maite zuenez bere ospea eta loria, guziz disimulatzen zuen amodio hura. Alabaina, pasio hura, urte luze batez atxiki ukan zuelarik, eta soleitu nahi ez zuenez, amodiotan diren bertze orok ohi bezala, soz eta elez, hain zuen sutan bihotzean, non azken erremedioaren bila hasi baitzen. Eta, hondarrean, pentsatu zuen hobe zuela bere desira hura satisfatzea, betiere Jainkoa baldin bazen haren bihotza zezaguen bakarra, ezen ez halako batez salatzen ahal zuen nehorri erratea.

Eta, konklusio horretara heldurik, andere nagusiaren ganberako zabaltza batetik so zegoen batean, han ikusi zuen promenari zebilela horrenbertze maite zuen hura; eta haren iduria, hain luzaz so egin ziolarik, egunaren argiarekin batean gordetzen ari zela, deitu zuen paje ttipi bat, eta, zalduna erakusten ziola, erran zion:

—Ikusten duk hango hura, satinezko jipoi gorri-beltz bat eta katamotz larruzko soineko bat daramatzana? Hoa eta erraiok bere lagunetarik bat beha duela hemengo baratzean, berarekin mintzatu nahi duela.

Eta, pajea zaldunarengana zihoala, emaztea nagusi anderearen kabinetean barna pasatu eta galeria hartara joan zen, burukoa jautsi eta sudur maska¹⁹ jauntzirik. Zalduna heldu zelarik hura zen lekurat, berehala zerratu zituen emakumeak bi bortak nehor sar ez zedin, eta, maska kendu gabe, estu-estu besarkatzen zuela, erran zion ahalik eta bozik apalenaz:

—Aspaldi du, ene laguna, dizudan amodioak zu ikusi ahal ukaiteko leku-tenoreen xerka ibilarazten nauela desiraz, baina hain izan da handia ene ohorea galtzeko beldurra denbora batez, non, ene nahiaren kontra, pasio hori disimulatzerantz hertsatu bainau. Baina, hondarrean, garaitu du

¹⁸ Brantôme-k bere *Recueil des Dames*-en dioenez, zaldun hori osaba zuen: François de Vivonne, M. de Chastaigneraie. Hala ere, ez dirudi Jambicqueren nagusi anderearen —Margaritaren— zerbitzuko ibili zenik, istorioan, disimulatzeagatik-edo, kontatzen zaigun bezala, haren anaia Frantzisko I.a erregeareneko baizik. (I. O.)

¹⁹ Maskara ttipia, aurpegia partez baizik estaltzen ez zuena. (I. O.)

beldurra amodioaren indarrak, eta, ongi dakidanez zure onestasanaren berri, promes egiten badidazu maite ukanen nauzula eta ez diozula sekulan nehoi deus erranen, eta ez zarela nor naizen ikertzen ibiliko, segurtatzen dizut amorante leial eta on izanen nauzula, eta ez dudala nehoiz zu ez bertze nehor maitatuko. Baina nahiago nuke hil zuk ni nor naizen jakitea baino. Prometatut zion zaldunak damak galdatzen ziona, eta, hala, sustatu zuen emakumea idurikoa errenda ziezaion berari, hots, ez ziezaion errefusa hark hartu nahi ukanen zion guzia.

Tenoreak, negua eta arratseko bortzak eta seiak artean baitziren, osoki gordetzen zion emaztearen ikuskaria zaldunari. Eta, haren arropak ukituz, ohartu zen belusezkoak zirela, zeinak sasoi hartan ez baitziren egun oroko jauntzi, non ez zen etxe handi eta burupekoetako emaztekien baitan. Eta, azpikoak ukituz eskuaz jujatu ahal ukaiteko maneran, ez zuen deus kausitu ez zegoenik net kondizio onean, garbi eta ezin txukunago. Gizona biziki entseatu zen ahal zuen ongiena errezibitzen, eta, damak, bere aldetik, ez zuen gutiago egin. Eta ongi ohartu zen zalduna dama ezkondua zela.

Damak berehala itzuli nahi ukan zuen etorria zen lekurat, baina zaldunak erran zion:

—Hagitz estimatzen dut ene meriturik gabe eman didazun ongia, baina areago estimatuko nizuke ene galdez emanen zenidakeena. Hain nago beterik halako grazia hartu izanaz, non otoi galdatzen baitzuten erran diezadazun ez ote nukeen gerora ere iguriki behar iduriko ongirik, bai eta nola nahi zenukeen nik egitea ere, zeren, ezagutu ezin zaitudanez, ez bainekike nola egin hura erdiesteko.

—Ez zaitetz arrangura —erran zuen damak—, eta izan segur ezen egun oro, ene nagusi andereak afaldu aitzin, hutsik gabe igorriko dudala baten bat zure bila, betiere zu berehala baldin bazoaz duela guti zinen zabaltza horretarat. Mandatu bakarra izanen da, eta da oroitzeko zer prometatut didazun: horrela adituko duzu galeria honetan beha nauzula. Baina, entzuten baduzu mahairako deirik egun horretan, edo erretira zaitetz edo zoaz gure nagusi anderearen ganberarat. Eta, oroz gainetik, ez zaitetz, arren otoi, nehoiz has nor naizen xerka, ez baldin baduzu nahi gure artekoa haustea.

Eta, hala, erretiratu ziren andereñoa eta zalduna, nor bere lekurat. Luzaz segitu zuten bizimolde hartan, eta zaldunak ez zuen sekulan jakin nor zen emaztea. Hala, fantasia handi batek bereganatu zuen, bere baitan emaztea nor ote zen gogoetan zebilela beti, ez baitzuen uste neholara ere ikusia eta maitatua izatea nahi ez zuen emakumerik bazitekeenik munduan. Eta jelosten hasi zen ez ote zen izpiritu gaiztoren bat, entzuna zionez predikari ergelen bati ezen deabruari bisaia ikus ziezaionak ez lukeela sekulan maitatuko. Hala, goganbehar hartan zebilela, deliberatu zuen jakin behar zuela nor zen hain amultsuki errezibitzen zuen hura. Eta, emazteak deitu zuen bertze batean, klera bat harturik joan zitzaion, eta, besarkatzean, marka bat egin zion gibeletik, bizkarrean, hura ohartu gabe; emaztea partitu bezain laster, lehiaz joan zen zalduna nagusi anderearen ganberarat, eta han gelditu zen borta ondoan, sartzen ziren damen bizkarrari gibeletik beha. Bertzeak bertze, han ikusi zuen Jambicque hura sartzen, halako bekokiz, non gizona beldur baitzen bertzeei bezala behatzeko, hain zegoen segur ezin zela hura izan. Baina, ez ahal zen emaztea itzuli, han ikusi zuen zaldunak bere marra zuria, eta hain gelditu zen balditurik, non nekez sinesten baitzuen ikusten ari zena. Guziagatik ere, eta ongi behaturik haren kaizuari, ukitzen ohi zuenaren idurikoa baitzen, eta haren bisaiaaren moldeei, zeinak ezagutzen ahal baitziren ukituz, segur jakin zuen bera zela. Eta ontsa kontent gelditu zen ikusirik ezen hainbat zaldun onest errefusatua zuen emazte batek, eta sekulan amoranterik eduki ez ukanaren fama izanki, bera bakarrik hautatu zuela. Amodiok, ez baita nehoiz geldirik egoten, ezin zuen jasan gizona luzaz bizitzea halako soseguan, eta, hain loria eta peskiza handian ezarri zuen, non deliberatu baitzuen

bere amodioa adieraztea, pentsatuz ezen, emazteak haren berri ukaiten zuelarik, emendatzeko motiboa izanen zela. Eta, dama handi hura lilitegira joan zen batean, Jambicque andereñoa bertze hutsarte batean barna promenatzera atera zen. Zalduna, andereñoa bakarrik zela ikusirik, harengana aitzinatu zen solastatzeko deseinuz, eta, alegia eginez ez zuela bertze nehon ikusi, erran zion:

—Andereño, aspaldi du ene bihotzean daukadala zureganako atxikimendu bat, zeina ez bainaiz ausartu adieraztera gaitzi izanen zitzaizun beldurrez, eta hain nauzu horregatik gaizki, non ezin baitut bihozmina jasan hil gabe, ez baitut uste ezein gizonek nik hainbat maitatu zaituenik sekulan.

Andereño Jambicquek, haren eleketa bururatzen utzi gabe, erran zion hira handiz:

—Entzun edo ikusi duzu nehoiz nik adiskide edo amoranterik ukan dudala? Segur naiz ezetz, eta harritzen nau ni bezalako emazte on batengana halako deseinuz jiteko duzun ausartziak, ardura hantatu bainauzu hemen, eta jakin behar zenuke, hortaz, ez dudala sekulan maiteko ene senarra ez bertze nehor. Beraz, begira zaitez halako deseinuei jarraikitsetik.

Zalduna, halako itxurapen handia ikusiz, ezin egon izan zen irriz hasi eta erran gabe:

—Anderea, ez zara beti orain bezain zorrotza enekin. Zertarako balio dizu enekin halako disimuluan ibiltzeak? Ez ote da hobe amodio perfektu bat ezen ez inperfektu bat?

Jambicquek ihardetsi zion:

—Ez dut zuretako amodiorik, ez perfekturik ez inperfekturik, ezpada ene anderearen bertze sehiendakoa bezalakoa; baina, mintzo berri zaren maneran mintzatzen jarraikitzen bazatzaizkit, halakoa litzateke ene herra, ezen kalte ekarriko bailizuke!

Zalduna jarraiki egin zitzaion, halere, bereari, eta erran zion:

—Eta non da ikusi ezin zaitudalarik egiten ohi didazun errezibimendu on hori? Zergatik gabetzen nauzu orain hartaz, eta uzten ez egunak erakuts diezadan zure edertasuna, grazia bete eta on batez lagundurik?

Jambicquek, nabarmenki zeinatzen zela, erran zion:

—Adimendua itsutu zaizu edo mundu honetan den gezurtirik handiena zara bertzela, zeren ez baitut nik ene mende guzian pentsatu zuri errezibimendu ez hoberik ez makurragorik egitea ezen ez egiten ari naitzaizuna; eta, otoi, erradazu zer erran nahi duzun!

Orduan, zaldun gaixoa, hobeki bereganatuko zuelakoan, erraten hasi zitzaion non zuen ikusia, eta nola egin zion, ezagutu ahal ukaiteko, marra hura kleraz. Dama, hura entzunik, halako moldez koleratu zen, ezen erran baitzion munduko gizonik gaiztoena zela, eta hain gezur itsusia asmatu zuela beraren kontra, non eginahalak oro egingen zituela damu zekion. Zaldunak, ongi baitzekien damaren baitan konfiantza osoa zuela nagusi andereak, apazegatu nahi ukan zuen, baina ezin. Eta hala, gizona han utzirik, nagusi anderea zen lekurat joan zen sumindurik, zeinak, Jambicque bere burua bezainbat maite zuenez, konpainia utzi baitzuen harekin mintzatzerako joateko. Eta, halako suminduran kausitu zuelarik, galdatu zion ea zer zuen, eta Jambicquek ez zion deus isildu nahi ukan, zaldunak erranak oro kontatuz; eta hain makurki gaizo gizonarendako, non arrats hartarik beretik manatu baitzuen nagusi andereak erretira zedin berehala bere etxerat, nehoekin elestatu gabe, eta han egon zedin berriz dei zezaten arte. Hala egin zuen hark lehiaz, makurrago izaten ahal zen beldur. Eta Jambicque nagusi anderearen baitan egon zen anartean, ez

zen zalduna itzuli etxe hartarat, eta ez zuen haren bila hasiz gero galdua zukeela fermuki prometatuzion damaren bertze berririk ukan.

«Horra, ene andereok, nola munduko loria bere kontzientzia baino areago maitatu nahi ukan zuen hark galdu zituen bata eta bertzea; izan ere, jende ororen begiek irakurtzen ahal dute²⁰ egun bere amorantearenei gorde nahi ukan ziena, eta, baten trufari ihes egin nahirik ororenean erori zen. Eta ezin da emazte hori desenkusatu sinpletasunagatik, ez eta amodio lañoagatik ere, zeinaz jende orok urrikaldu behar bailuke, ezpada bigetan akusatu, bere gaiztakeria ohore-lorien estalki bikunaz estaltzeagatik, eta Jainkoaren eta gizon-emazteen aitzinean zena ez bezalakoa agertu nahi ukaiteagatik. Baina Hark, zeinak ez baitio nehola ere bertze nornahiri uzten bere loria, estalki hori kendu eta desohore bikuna eman zion».

«Horra ezin barkatuzko ahalkeizun bat —erran zuen Oisillek—; zeren, nork egin dezake haren alde, Jainkoak, ohoreak eta amodioak ere akusatzen dutelarik?».

«Bai —erran zuen Hircanek—, plazerak eta erokeriak, bi abokatu handi baitira emazteendako».

«Ez baldin bagenu bertze abokaturik —erran zuen Parlamentek—, ezpada aipatu dituzun horiek eta zuhauek, nekez defendatuko genuke gure kausa. Baina plazerean erortzen diren emazteak ez lirateke emazte izendatu behar, gizon baizik, zeinei grinak eta irritsak ohorea emendatzen baitie. Izan ere, bere etsaia gezurtatzeagatik mendeku hartu eta eraiten duen gizon bat, are lagun nobleagotzat hartzen da; orobat bere emazteaz gain dozena bat amorante duena. Baina bertze funts bat du emakumeon ohoreak: eztitasuna, pazientzia eta kastitatea».

«Emazte zuhurrez ari zara? —erran zuen Hircanek».

«Ez baitut bertzelakorik ezagutu nahi —ihardetsi zuen Parlamentek».

«Buruarinik ez balego —erran zuen Nomerfidek—, maiz egin zuketen gezur jende orok sinestea nahi duten horiek!».

«Otoizten zaitut, Nomerfide —erran zuen Geburonek—, har dezazun ene hitza, eta ez ahantz emakumea zarela, jakin dezagun hala zer dioten beren erokeriez egiaztat hartuak diren jende batzuek».

«Bertuteak beharturik nauzunez eta aldia eman didazunez, dakidana kontatuko dizuet. Ez baitut hemen nehor entzun kordelierren kontra aritzean deus gupidetsi duenik, bada, diedan pietateagatik, haiei buruz ongi erratea deliberatu dut, orain kontatzera noakizuen istorioaren bidez».

²⁰ Ahozotasuna behartu egiten da hemen pixka bat, kontatutako istorioa liburu honetan idatzitako istorio ere bai baita. (I. O.)

BERROGEITA LAUGARREN ISTORIAO

Sedan-eko jaunak amoina bikundu zion kordelier bati egia gorde ez zuelako, eta, hala, fraideak bi zerri erdietsi zituen baten orde.

Arribatu zen kordelier bat Sedaneko etxera, Sedaneko andereari²¹, zeina Crouy etxekoa baitzen, galdatzeko urte oroz erremusinatan ematen ohi zien zerria. Sedaneko jaunak, gizon zuhur eta ele-ederra bera, bere mahairat eserarazi zuen aita on hura, eta jaten eman zion. Eta, bertzeak bertze, erran zion, probokatu nahiz:

—Aita ona, ongi egiten duzu eske etortzen ezagutzen ez zaitugun anartean, zeren biziki beldur bainaiz ezen, halako batez zure hipokrisia agerian gelditzen baldin bada, ez duzula gehiago ukanen haur pobreen ogia, burasoen izerdiaz irabazia²².

Kordelierra ez zen batere harritu hitz horiek entzunik, eta erran zion:

—Ene jauna, gure ordena hain da ongi funtsatua, ezen mundua mundu deino iraunen baitu, zeren gure funts horrek ez baitu sekulan huts eginen, lurraren gainean gizon-emazterik den bizkitartean.

Sedaneko jaunak, jakin nahirik zein zen fraide haien bizitzaren funtsa, biziki otoiztu zuen erran ziezaion. Kordelierrak, zenbait desenkusaren ondotik, erran zion:

—Erran diezazudan manatu plazer duzunez, jakinen duzu, bada: erranen dizut, jauna, emazteen erokeria dela gure funtsa; eta, mundu honetan emazte ero edo ergelik den bizkitartean, ez garela gu gosez hilen.

Sedaneko anderea, kolera bizian halako hitzak entzunik, hain haserretu zen, ezen, senarra han izan ez balitz, erdeinu egin baitziokeen kordelierrari, eta finki eta fermuki juratu zuen ez zuela hark ukanen prometatua zion zerria; baina Sedaneko jaunak, ikusirik fraideak ez zuela egia batere gorde, zin egin zuen biga ukanen zituela, eta komenturat eraman ziezazkioten manatu zuen.

«Horra, bada, ene andereok, nola kordelier hark, segur baitzen damen ongiak ez ziola huts egiten ahal, kausitu zuen moldea gizon-emazteen grazia-erremusinei esker bizi zirelako egia nehola ere ez gordetzeko: lausengari eta disimuluzale izan balitz, damen gogokoago zatekeen, baina ez beretzat probetxugarri, ez eta bereendako ere».

Istoriao ez zen bururatu han zeuden guziei irri eginarazi gabe, eta, oroz gain, Sedaneko jaun-andereak ezagun zituztenei. Eta Hircanek erran zuen:

«Beraz, kordelierrekin ez lukete nehoiz prediku egin behar emazteak zuhur bihur daitezen, ikusirik hain balios zaiela haien erokeria».

Parlamentek erran zuen:

²¹ Catherine de Croye, Chimayko kondearen alaba, La Marck-eko Robert II., Bouillon-eko duke eta Sedaneko jaun zenarekin ezkondua, 1491n. (I. O.)

²² Bibliako Hasiera 3, 19: «Zeure bekokiko izerdiz jango duzu ogia». (I. O.)

«Ez dituzte sustatzen zuhurrak izan daitezen, ezpada sinets dezaten hala direla; zeren guziz mundukoia eta eroak direnek ez baitiete amoina handirik ematen, baina, komentuak hantatu eta herio buruaz markatu paternosterrak²³ aldean eta burukoak bertzeek baino apalago eramaten ohi dituztenek, berriz, zuhurrenak direla uste dute; eta horiei erran behar litzaieke ergel²⁴. Izan ere, beren salbazioa zuzengabeen saindutasunean²⁵ duten konfiantzan fundatzen ohi dute, itxura xume baten kariaz erdi jainkotzat baitituzte».

«Baina nork ez die horiei sinetsiko —erran zuen Ennasuitek—, ikusirik gure prelatuek ordenatuak direla, Ebanjelioa predika diezaguten eta gure bizioengatik larderia gaitzaten?».

«Haien hipokrisia ezagutu dutenek, eta Jainkoaren doktrina eta deabruarena ongi bereizten dakitenek —erran zuen Parlamentek».

«Jesus! —erran zuen Ennasuitek—, iduri zaizu jende horiek ausartuko liratekeela doktrina maleziatsu bat predikatzeraz?».

«Nolaz, bada —erran zuen Parlamentek—? Segur naiz ez dutela deus sinesten Ebanjelioa baino gutiago; gaiztoez ari naiz naski, zeren ezagutzen baitut haien artean on anitz ere, Eskritura xahu eta sinpleki predikatu eta eskandalurik gabe bizi dena, anbiziorik eta gutziarik gabe, kastitatean, xahutasun ez itxuratan, ez behartuan. Baina ez daude kaleak azken horiek lauazatuak hainbertze nola haien kontrakoek markatuak: eta fruituetarik ezagutzen da zuhaitz ona²⁶».

«Alafede —erran zuen Ennasuitek—, nik pentsatzen nuen ezen beharturik ginela, bekatu mortalaren zigorpean, sinestera prediku aulkitik egiazat erraten diguten guzia, hots, Eskritura Sainduan dagoenaz baizen mintzo ez direnean, edo jainkozko inspiraziotik mintzo diren doktore sainduen erakutsiak alegatzen dituztenean».

«Nitaz denaz bezainbatean —erran zuen Parlamentek—, ezin dut ez ikusi egin, bai baitira haien artean zinez fede tzarrekoak, eta haietarik batek, teologian doktore eta Colimant izenekoa bera²⁷, predikari handia eta bere ordenako probintziala baitzen, gogatu nahi ukan zuen bere anaietarik zenbait ezen Ebanjelioa ez zela sinesgarriagoa Zesarren Iruzkina edo egiazko doktoreek²⁸ eskribituriko bertze istorio batzuk baino; eta, hori entzun nuenetik, ez dut predikarien hitzik sinesten, non ez zaidan iduri Jainkoarenekin akort direla, Hura baita zinezko gako hitz egiazkoak eta gezurrezkoak ezagutzeko».

«Sinetsazue—erran zuen Oisillek— ezen umilki eta maiz irakur dezana ez dutela sekulan tronpatuko giza fikzio edo asmakizunek, zeren izpiritua egiaz beterik daukanak ez baitu gezurra errezibitzen ahal».

«Iduri zait —erran zuen Simontaultek— pertsona laño bat aiseago tronpatzen ahal dela bertze nornahi baino».

«Bai —erran zuen Longarinek—, uste baldin baduzu lañotasuna eta ergelkeria ber gauza direla».

²³ Arrosarioak, garezur bat eta bi hanka hezur gurutzatuz dekoratuak. (I. O.)

²⁴ Pauloren gutuna, Erromatarrei (1, 22): «Beren buruak zuhurtzat edukiz, ergel bihurtu dira». (I. O.)

²⁵ Fraideez ari da, inondik ere. (I. O.)

²⁶ Lukas (6, 44): «Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari». (I. O.)

²⁷ Itxura denez, Orléans-eko teologo frantziskotar bat izango zen, zeinak, ustez, amarru batean parte hartu baitzuen, jendeari sinetsaraziz hildako emakume baten arimak harrabots egiten zuela. (I. O.)

²⁸ Elizako Doktoretzat hartuak ofizialki. (I. O.)

«Erran nahi dizut —erran zuen Simontaultek— ezen emazteki on, ezti eta laño bat tronpatzen aiseago dela sotil eta maleziatsu bat baino».

«Ene iduriko —erran zuen Nomerfidek—, badakizu zuk halako ontasunez mukurru den emazteren baten berri, eta, hortaz, ene hitza emanen dizut haren istorioa erran diezaguzun».

«Ederki zilatu duzunez —erran zuen Simontaultek—, hutsik gabe kontatuko dizuet, baina zin egin behar didazue ez duzuela negar eginen. Ene andereok, erraten dutenek zuen gaiztakeria gizonena baino handiagoa dela hobe lukete orain kontatzera noakizuena bezalako etsenplu bati behatzea, ez baitizuet adierazi nahi soilik senar baten izugarrizko gaiztakeria, ezpada haren emaztearen lañotasuna eta ontasuna».

BERROGEITA BORZGARREN ISTORIA

Emaztearen galdez, tapizatzaile batek inozenteetakoa egin zion haren ganberazainari²⁹. Gizon hura ganberazainaz amorosturik zebilen, halako maneran, non emaztearena baizik ez zena ematen baitzion; eta hain zen lañoa hura, ezen ezin baitzuen neholara ere sinetsi senarrak halako makurrik egiten zionik, harik eta auzoko emakume batek gaztigatu zion arte.

Bazen Tours-eko hirian izpiritu on eta biziki sotileko gizon bat, zeina Frantzisko I.a erregearen seme Orléanseko jauna³⁰ zenaren tapizatzailea baitzen. Eta, tapizatzaile horri, eritasun baten kausaz elkortu bazen ere, ez zitzaion adimendua gutitu, zeren, ikusiko duzuen bezala, bertze nornahi baino hobeki moldatzen baitzen, bai bere ofizioan, bai bertze zernahitan. Esposatua zen emazte on eta onest batekin, eta bakean eta pausu onean bizi zen harekin. Beldur zen emaztea atsekabetzeko, eta hark ere ez zuen bilatzen gizonari zernahitan obeditzea baizik. Baina, emazteari zion amodio on hartaz gainera, hain zen karitatetsua, ezen usu auzoko emakumeei ematen baitzien emaztearena zena, betiere ahalik eta manerarik isilenean. Bazen haien etxean ganberazain guri eta eder bat, eta amorostu zen tapizatzailea hartaz. Nolanahi den, emaztea ohartuko zen beldur, alegia egiten zuen maiz erasia eta erantzuki egiten ziola, erranez sekulan ikusia zuen neska tzarrik alferrena zela, eta ez zela harritzen, ikusirik haren nagusi andereak ez zuela nehoiz zafratzen. Eta, egun batez, Inozente eguneko arraileriaz ari zirela, erran zion tapizatzaileak emazteari:

—Fabore ona litzateke zure neska tzar horri inozenteetakoa egitea, baina ez luke zure eskuez izan behar, ahulegiak baitira, eta zure bihotza urrikaltsuegia. Alabaina, ene eskuez egingen banio, hobeki zerbitzatuko gintuzke hemendik aitzina orain arte baino.

Emazte gaixoak, ez baitzuen ezein makurrik ikusten hartan, otoiz galdatu zion hala egin zezan, aitortuz berak ez zuela ez bihotzik ez indarrik neska zafratzeko. Senarrak, gogo onez onartu baitzuen mandatua, borrero zorrotzarena eginez erosarazi zituen zeudenik-eta makilarik finenak, eta, erakusteagatik ez zuela deusetan gupidesteko asmorik, gesaletan trenparazi zituen, eta hala, gaizo emaztea areago urrikaldu zen ganberazainaz senarrak goganbehartu zena baino. Heldu zen Inozente eguna, eta tapizatzailea goiz-goiz jaiki zen, goiko ganberarat joan, non bakar-bakarrik baitzetzan ganberazaina, eta inozenteetakoa egin zion, baina ez emazteari errana zion bezala. Ganberazaina negarrez eta oihuz hasi zen, baina guzia alferrik izan zen. Zernahi gisaz, eta emaztea han agertuko zen beldur, kolpeka hasi zen makilez ohatzeko zuraren kontra, azalgabetu eta hautsi zituen arteraino. Eta, hala, hautsirik, eraman zizkion emazteari eta erran zion:

—Ene maitea, ez dut uste aise ahantziko duenik Inozente eguna zure ganberazain horrek.

Tapizatzailea etxetik partitu zelarik, ganberazain gaixoa andere nagusiari jin zitzaion, eta, belauniko jarriarik, erran zion senarrak eginga ziola sekulan ganberazain bati egin izan zaion makurrik handiena. Baina andereak, pentsatuz dena zela senarrak eman zizkiola uste zuen azote ukaldiengatik, ez zion erraten ari zitzaiona finitzen utzi, eta erran zion:

²⁹ Ohitura zaharra zen, Inozente egunean (abenduarien 28an), goizean lo eta jaikitzeke nagi zebiltzanak ohean zirela harrapatu eta bertan azotatzekoa, ipurdiko batzuk emanez. (I. O.)

³⁰ Charles, Orléanseko dukea, Frantzisko I.a erregearen eta Klaudia Frantziakoaren semea, 1545ean hila. (I. O.)

—Ederki egin din gure senarrak, baduelako urtebete luze haren gibeletik nabilela, egin dezan otoika; eta, min egin baldin badin, pozten naun biziki, nihaur naun hobendun bakar; eta ez din egin oraino egin behar lukeen guzia.

Ganberazainak, ikusiz andereak onesten zuela gertaturikoa, pentsatu zuen ez zela izanen uste zuen bezain bekatu handia; izan ere, hain emazte ontzat zuen hark eragina zen, eta handik harat ez zen gehiago ausartu hartaz berriz mintzatzera. Baina gizonak, ikusiz emaztea tronpaturik bera hura tronpatuz bezain kontent zegoela, deliberatu zuen maiz kontentatuko zuela ganberazaina, eta hainbertze gogatu zuen, non ez baitzuen gehiago negar egiten inozenteetakoa hartzeagatik. Eta luzaz iraun zuen bizimolde hark, emaztea ohartu gabe, harik eta elurte handiak heldu ziren arte. Inozenteetakoa baratzekeo belar gainean eginga zion bezala, bertze horrenbertze egin nahi ukan zion elur gainean. Eta, goiz batez, etxeko nehor jaiki aitzin, eraman zuen atorra hutsik gurutzearena egitera elurretan, eta han ibili ziren biak elur botaka elkarri, inozenteetakoa egitea ahortzi gabe. Eta horretan hauteman zituen auzoko emazte batek, baratze hartara xuxen ematen zuen leihoan baitzen zer aro zen ikusterat aterarik. Eta, halako moldez koleratu zen tzarkeria hura ikusirik, non bere auzokide onari erranen ziola deliberatu baitzuen, ez zezan gehiago tronpa halako senar tzarrak, ez eta zerbitza neska gaizto hark ere. Tapizatzaileak, bere dostetatxoak egin ondoan, inguruan behatu zuen ea nehork ikusten ahal zuen; eta han zuen hauteman auzoa leihoan, eta guziz asalaturik gelditu zen horregatik. Baina gizonak, ongi baitzekien tapizei kolore ematen, pentsatu zuen gertakari hura ere ongi koloreztatzea, eta, halako moldez, non auzoa emaztea bezain tronpaturik geldituko baitzen. Eta, berriz oheratu bezain zalu, jaikiarazi zuen emaztea ohetik, atorra hutsik, eta eraman zuen baratzerat ganberazaina nola. Eta han ibili zen luzaz emaztearekin dostetan elurraz, bertzearekin egin bezala, eta inozenteetakoa egin zion ondorean, ganberazainari bezala. Eta oherat joan ziren biak gero. Emazte on hura mezara joan zelarik, han jin zitzaion bila hutsik egin gabe bere auzo eta adiskide ona, eta, hain zuen hark handia arta, ezen otoiztu baitzuen, bertze deus erran nahi ez ziola, egotz zezan etxetik ganberazain hura, neska biziki tzar eta perilosa baitzen. Baina andereak ez zuen hori egin nahi ukan jakin gabe zergatik zuen auzoak hain estimu txarrean, eta hark, hondarrean, kontatu zion ikusi zuela goizean baratzean senarrarekin. Emazte ona irri karkailan hasi zitzaion, erranez:

—Ai, ai, ene auzo, adiskide on hori, nihaur nindunan!

—Nolaz, ba, ene laguna? Atorra hutsik zegoan, goizean, bortz orenak inguruan.

Emazteak ihardetsi zion:

—Alafede, ene laguna, nihaur nindunan.

Bertzea bere solasari jarraiki zitzaion:

—Elkarri elur botaka ibili zitunan, bularretan gero, eta bertze leku batean gero, ahalik eta manierarik gordeenean.

Emazteak erran zion:

—Hep!, hep!, ene laguna, nihaur nindunan.

—Hara, ene laguna —erran zuen bertzeak—, baina gero ikusi ditinat, elur gainean, eta ez polita ez onesta ez den zerbaitetan ari zitunan.

—Ene laguna —erran zuen emazte onak—, erran dinat, eta berriz erranen dinat, nihaur nintzela eta ez bertze nehor dionan hori guzia egin duena; ene senar ona eta biok horrela ibiltzen ohi gaitun dostetan, pribatuan. Otoi, galdatzen dinat ez hadin neholere eskandaliza, ongi baitakin eginbide dugula gure senarren gogara egitea.

Horrela partitu zen auzo on hura, halako senar bat ukaiteko desiran gehiago, auzo onarena zuzendu nahiz etorri zenean baino. Eta, itzuli zelarik tapizatzailea emaztearenganat, bururen buru kontatu zion hark auzoarekiko guzia.

—Hara, maitea —ihardetsi zion tapizatzaileak—, ez bazina zu emakume ona eta adimendu onekoa, aspaldi bereizi ginatekeen bata bertzearengandik; baina igurikitzen dut Jainkoak begiratuko digula gure amodio on hau, bere loriaren eta gure kontentamendu onaren izenean.

—Halabiz, maitea —erran zuen emazte onak—, eta igurikitzen dut ene aldetik ez dezazun nehoiz hobenik kausi.

«Sinesgogorra litzateke zinez, ene andereok, halako istorio egiazko bat entzunik, pentsa lezana oraino gizonak bezain maleziatsu zaretela; zernahi gisaz, gizonei eta emazteei makurrik egin gabe, eta egiaz laudatzeko batzuk nahiz bertzeak, hutsik egin gabe erraten ahal da onenak ere ez duela deus balio».

«Gizon hura —erran zuen Parlamentek—, hain zen bereziki gaiztoa, ezen, alde batetik, ganberazaina tronpatzen baitzuen, eta, bertzetik, emaztea».

«Zuk ez duzu, orduan, ongi entelegatu istorioa —erran zuen Hircanek—, errana gelditu baita bi-biak kontentatzen zituela goiz batean; eta eni iduri zait ezen bertute handiko gauza dela, gorputzaren aldetik nahiz izpirituarenetik, jakitea erraten eta egiten zerbait, bi kontrario kontent uzteko maneran».

«Bada, hori bigetan da makur —erran zuen Parlamentek—: gezur bidez satisfatzea bataren lañotasuna eta bizio bidez bertzearen malezia. Baina ongi dakusat bekatu horiek, zure iduriko juze baten aitzinerat eramanik, barkatuak izanen zaizkizuela beti.

«Segur zaude —erran zuen Hircanek— ezen ez diodala sekulan ekinen halako egiteko handi eta zail bati, zeren zu kontent utziz gero aski baitut ene eguna alferrik galdutzat ez emateko».

«Elkarrenganako amodioak ez baldin badu bihotza asetzen —erran zuen Parlamentek—, ez du bertze deusek asetzen ahal».

«Egiaz —erran zuen Simontaultek—, daukat ezen ez dela munduan pena handiagorik maitatzea eta maitatua ez izatea baino».

«Maitatuak izateko —erran zuen Parlamentek—, maite duten haien baitarat adrezatu behar genuke. Baina maizegi gertatzen da ezen ongi maitatuak diren emazteak direla maitatu nahi ez dutenak, eta gutien maitatuak diren gizonak, berriz, sutsuen maitatzen dutenak».

«Gogora ekarri didazu istorio bat —erran zuen Oisillek—, zeina ez bainuen pentsatua onen multzorako».

«Otoi —erran zuen Simontaultek—, konta iezaguzu, bada».

«Bada, gogo onez kontatuko dizuet —erran zuen Oisillek».

BERROGEITA SEIGARREN ISTORIOA

De Valé kordelierra, gonbidatua zelarik Angoulesmeko³¹ salbuetsien jujearen³² etxera afaltzera, ohartu zen haren emaztea, zeinaz amorosturik baitzen, bakar-bakarrik igaten ari zela ganerrerat, eta, ustekabea harrapatu nahiz, haren gibeletik abiatu zen; baina, hain ostiko handia eman zion hark sabelean, non trebukatu eta han etorri baitzen goitik beheiti fraidea. Handik ihes, hiritik kanporat jo zuen, beraren ordenako jendea biziki maite zuen andereño baten etxerat, zeinak, ergelkiegi sinesteagatik badela fraide horiengan dagoena baino ongi gehiago, gomendatua baitzion alaba, xuxen zezan; eta kordelierrak neskatoa, amari hitzeman zion bezala alferkeriagatik gaztigatu orde, hartu eta bortxatu egin zuen.

Bazen, Angoulesme hirian, non ardura egoten baitzen Frantzisko I.a erregearen aita Karlos kondea³³, De Valé izeneko kordelier bat, gizon jakintsu eta predikari handitzat estimatua, zeinak, Abendu batean³⁴, hirian predikatu baitzuen, kondearen aitzinean. Hala, fama handia hartu zuen, eta ezagutzen zutenek oro etxerat gonbidatu nahi ukaiten zuten lehia handiz. Eta, bertzeak bertze, gonbidatu zuen konderriko salbuetsien jujeak, zeina esposatua baitzen emazteki eder eta onest batekin. Kordelierra hartaz amorosturik zegoen, halako maneran, non amodioz hiltzen baitzen, baina ez zen ausartzen deus erratera. Ohartu zen emaztea, ordea, eta arraiki trufatu zen fraideaz. Hark, bere diseinu ero haren zenbait erakutsi egin ondoan, hauteman zuen dama egun batez bakar-bakarrik igaten ari zela ganerrerat, eta, ustekabea harrapatu nahiz, haren gibeletik igan zen; baina hark, azantza aditu zuelarik, itzuli eta galdatu zion nora zihoan:

—Zure gibeletik nator —erran zuen fraideak—, zerbait sekretua erran nahi baitizut.

—Ez jin, aita on hori —erran zuen juje andereak—, ez baitut nik zure idurikoekin solas sekreturik batere nahi, eta, bertze maila bat goitiago egiten baduzu, dolu izanen zara.

Baina hark, dama bakarrik zela ikusiz, ez zituen kontuan hartu haren hitzak, eta lehiaz aitzinatu zen goiti. Damak, izpiritu zorrotzekoa baitzen, mailan goiti zela ikusiz, ostiko handi bat eman zion sabelean, eta, jausteko erraten ziola:

—Zoaz hemendik, jaun balent hori!³⁵,

goitik beheiti amilarazi zuen. Hain gelditu zen lotsaturik fraide gaixoa, ezen, erortzean hartu mina ahantzi eta ihes joan baitzen hiritik ahalik eta lasterrena, ongi baitzekien emazteak ez ziola senarrari isilduko gertaturikoa. Eta ez zion isildu, ez kondeari eta ez kondesari, eta, horregatik,

³¹ Egungo Angulema, Charenteko departamenduan. (I. O.)

³² “Salbuetsi” esaten zitzaizen Karlos Angulemako jaunaren justiziatik libre zeudenei, bai auziaren izaeragatik beragatik zein pribilegio pertsonalen bat zutelako, eta, hartara, Erregeren justiziapean geratzen ziren zuzenean. Angulemako Konderrria *apanage* gisa zeukan Karlosek, hau da, jatorrian errege batek semeren bati emandako ondasun bat zen, eta halakoetan jarduten ziren aipatu jujeak. (I. O.)

³³ Karlos, Angulemako kondea (1459-1496), Luisa Savoiakoaren senar eta Margarita erreginaren aita. (I. O.)

³⁴ Ez da urteko azken hilaz ari, baizik eta Eguberria prestatzeko sasoi liturgikoaz (*adventum*, latinetik). (I. O.)

³⁵ Jatorrizkoan hitz joko polita dago hemen, damaren aipatu “izpiritu zorrotza” erakustera datorrena, «*Devallez, devallez, monsieur!*» baitio, hots, “Jaitsi, jaitsi, jauna!”, fraidearen deiturarekin —De Valé— jolastuz, bistan denez. (I. O.)

kordelierra ez zen gehiago ausartu bi haien aitzinerat agertzera. Eta, bere gaiztakeria bururaino konplitzeko, jende ororen gainetik kordelierrak maite zituen andereño baten baitarat joan zen, eta, haren aitzinean prediku bat edo bi egin ondoan, han hauteman zuen alaba, biziki ederra zena. Eta, goizean goiz jaikitzen ez zenez predikua entzuterat etortzeko, erantzuki egin zion amaren aitzinean, eta hark erran zion:

—Ene aita, Jainkoari otoi apur bat dasta dezan zuen artean erabiltzen ohi dituzuen zigor horietarik³⁶!

Aita onak zin egin zion ezen, alferkerian jarraikiz gero, emanen ziola hartarik. Amak otoika galdatu zion hala egin zezan. Egun bat edo biren buruan, sartu zen aita ona andereñoaren ganberarat, eta, alaba han ez zegoela ikusiz, galdatu zion ea non zen. Andereñoak erran zion:

—Hain guti da zure beldur, ezen erranen bainuke ohean dela oraino.

—Ez zegon dudarik —erran zuen kordelierrak—, hagitz ohidura txarra dun neska gazteak horren nagi izatea. Jende gutik hartzen din kontuan alferkeriaren bekatua, baina, eni bederen, iduri zaidan direnetarik perilosenetakoa dugula bera, gorputzarendako zein arimarendako: horregatik, gaztigatu beharko huke ongi, eta, ene kargu uzten badun, ongi begiratuko dinat Jainkoari otoitz egin beharreko tenorean ohatzean egotetik.

Gaizo andereñoak, gizon ona zelakoan, alaba xuxen zezan otoiztu zuen; eta hala egin zuen fraideak berehala, eta, zurezko zurubi ttipi batetik iganez, han kausitu zuen neska bakar-bakarrik, ohatzean, lo betean. Eta, lo zegoela, bortxatu egin zuen. Gaizo neskak, atzarri zelarik, ez zekien hango hura gizona zen ala deabrua, eta deiadarrez hasi zen, ahalik eta gorakiena, amari helez; eta hura, zurubipean zela, oihuz hasi zitzaion kordelierrari.

—Urrikalmenik ez, jauna, emaiizu oraino, eta gaztiga neska tzar hori.

Eta kordelierra, nahikeria makur hura bururaturik, jautsi zen andereñoa zen lekuraino, eta erran zion, bisaia sutan zuela:

—Ene andereño, iduri zaidan hire alabak ongi oroituko duela ene zigorra.

Ama, biziki eskertu ondoan, alaba zen ganberarat igan zen, eta han kausitu zuen, halako krimena pairatu duen emazteki on bati dagokion doluan. Eta, egia jakin zuelarik, jendea igorri zuen kordelierraren xerka, alde guzietarat, baina hura hagitz urrun zen ordukotz; eta ez zuten gehiago ediren Frantziako erresuma guzian.

«Horra, ene andereok, nolako segurtasuna dagoen halako mandatuak ongi erabiliko ez dituztenen esku utzirik. Gizonen xuxentasuna gizonei datxekie eta emazteena emazteei; zeren, emazteak gizonak xuxentzen, gizonak emazteak xuxentzen krudel diren bezain urrikaltsu bailirateke».

«Jesus!, anderea —erran zuen Parlamentek—, hori bai kordelier tzar eta gaiztoa!».

«Errazu, areago, ezen ama zela ergela eta lañoa —erran zuen Hircanek—, hipokrisiaren kolorepean elizan baizen ikusi behar ez diren horiei halako trebantziatarako bidea emanik».

«Egiazki —erran zuen Parlamentek—, aitortzen dut ama hori sekulan izan direnetarik ergelena iduri zaidala, eta, juje anderea bezain zuhurra izan balitz, zurubitik beheiti igorri zukeen

³⁶ Zigortzeko, gorputza hilduratzeko, erabiltzen diren makila edo tresnak. (I. O.)

fraidea ezen ez goiti. Baina, zer nahi duzu?, erdi aingeru diren deabru horiek³⁷ dituzu orotan perilosena; zeren, hain ongi dakite argizko aingeru bihurtzen³⁸, ezen duda egiten baita diren bezalakoak direla goganbehartzeko, eta, ene iduriko, laudatu beharrekoak dira batere goganbehartzen ez direnak».

«Nolanahi den —erran zuen Oisillek—, usnatu beharra dago ekidin behar den gaitza, eta bereziki karguan daudenek, zeren hobe baita ez dagoen gaitzaz goganbehartzea, ezen ez, ergelki sinesteagatik, dagoen horretan erortzea; eta ez dut sekulan ikusi emazterik enganaturik gizonen hitza sinesten berant ibiltzeagatik, baina bai, bat baino gehiago, gezurra fede onez lasterregi sinesteagatik. Horregatik diot ezen ezin dela aise usnatu etortzekoa den gaizkia, ez beren kargu gizonak, emazteak, hiriak eta estatuak dituztenek ere. Izan ere, zela-zelatan egonagatik, gaitzakeria eta traizioa aski nagusitzen dira, eta erne ez dagoen artzaina beti tronpatuko du otsoaren maleziak».

«Goganbehartsua denak ezin baitu adiskide perfektu bat ukan —erran zuen Dagoucinek—, eta lagun aski goganbehar bakar batek hasantzen ohi ditu».

«Halako etsenplurik ezagutzen baldin duzu —erran zuen Oisillek—, hona hemen ene boza erran diezaguzun».

«Badakit egiazkoa den bat —erran zuen Dagoucinek—, eta gustuz entzunen duzue. Erranen dizuet, ene andereok, noiz hausten den errazkien adiskidetasun on bat, eta da adiskidetasun horren segurtasuna goganbeharrari bide ematen hasten zaiolarik. Izan ere, adiskide batengan sinestea ohorerik handiena den bezala, adiskideari mesfida izatea da desohorerik handiena; hala, bertzea nahi ez dugun moldekoka dela ikusten hasten gara, eta hori da adiskidetasun on anitz haustearen kausa, eta adiskideak etsai bilakatzearena. Berehala ikusiko duzuen bezala, kontatu behar dizuedan istorioan».

³⁷ Beste bertsio batzuetan «*diable du midy*» dio hor, hots, «eguerdiko deabrua», Bibliako Salmoak liburuari erreferentzia eginez (91, 5-6): «Ez diozu beldurrik izango gauaren izuari, ez egunez jaurtitako geziari; ez ilunpetan zabaltzen den izurriari, ez egun-argitan jotzen duen gaitzari» (bertset hori, antzinako itzulpenetan, «ez eguerdiko deabruari» esanez amaitzen da). (I. O.)

³⁸ Oisillek lehen ere aipatua du “argizko aingeruen” kontu hori, 23. istorioa kontatzen hastear delarik (ikus oharra bertan). (I. O.)

BERROGEITA ZAZPIGARREN ISTORIAO

Halako adiskidetasunean bizi izan ziren bi zaldun, ezen, emaztearekikoan salbu, ez baitziren luzaz bereiz ibili, harik eta ezkonduarik zena, motiborik gabe, lagunaz goganbehartzen hasi zen arte; eta hark, bidegabeki zitzaizkionez aiher, adiskidetasun hura hautsi zuen, eta ez zen gelditu laguna adardundu arteraino.

Baziren, Perche herrialde inguruan, bi zaldun, zeinak haurtzarotik bizi izan baitziren adiskidetasun handi eta bete batean, halako maneran, non biren baitan ez baitzen bihotz, etxe, ohe, mahai eta poltsa bakar bat baizik. Luzaz bizi izan ziren adiskidetasun bete hartan, eta ez zen haien artean sekulan izan ele edo nahi bat, zeinetan pertsona arteko diferentziarik ikusten ahal baitzen, hain ziren bizi, ez bi anaia bezala, ezpada gizon bakar bat nola. Ezkondu zen bietarik bat, baina ez zuen, hala ere, adiskidetasun on hura utzi, ez eta bere lagun onarekin zeraman bizimoldea, usaian bezala. Eta, ostatu ttipixko batean suertatzen baldin baziren, emaztearekin eta biekin batera oheraraziko zuen laguna beti³⁹, egia bada ere bera erdian kokatuko zela. Beren ontasunak oro komunak zituzten, halako moldean, ezen, haietarik baten ezkontzea suertatuz gero, ez baitzuen horrek adiskidetasun handi hura baratuko. Baina, denbora baten buruan, mundu honetako zorionak, zeinak berekin ohi baitu kanbiamendua, ezin ukan zuen iraun etxe hartan, han zegoen ditxa gehiegizkoa baitzen, eta galdu zuen senarrak lagunari zion konfiantza, ez hark ez emazteak neholako motiborik eman ez bazioten ere. Emaztearen aitzinean ezin zuen disimulatu, eta hitz itsusi batzuk erran zizkion; hura guziz balditurik gelditu zen, manatua baitzion senarrak gauza orotan, salbu batean, bera bezain ongi errezibitzeko beti laguna, nahiz debekatu harekin mintzatzea ez baldin bazen jende anitzen aitzinean. Emazteak hori guzia jakinarazi zion senarraren lagunari, eta hark ez zion sinetsi, ongi baitzekien ez zuela berak nehoiz pentsatu laguna samurrazten ahal zuen deus egitea. Hala, gizonak, ez zionez deus isiltzen ohi lagunari, erran zion zer entzun zuen, eta otoiztu zuen ez ziezaion egia isil, ez baitzuen nahi, ez hartan eta ez bertze deusetan, hain luzaz ukan zuten adiskidetasun hura hausteko motiborik eman. Zaldun ezkonduak segurtatu zion ez zuela sekulan halakorik pentsatu, eta murmurika hori atera zutenek gezurra erran zutela gaiztoki. Adiskideak erran zion:

—Ongi zekiat jelosia amodioa bezain pasio jasangaitza dela, eta halako goganbeharririk ukanez gero, eneganako izanik ere, ez hinduket hobenduntzat ukanen neholaz ere, ezin baihuke horretarik begiratu. Baina hire ahalean den gauza batez, bai, banikek motiborik pleinu izateko, eta duk hire eri hori eni isiltzeaz, ez baitidak sekulan gordean atxiki ukan duan pentsamendurik, pasiorik edo iritzirik. Eta ber gauza nitaz denaz bezainbatean, zeren, hire emazteaz amoros banintz, ez hidake neholaz ere gaiztakeriatzat egotzi behar, su hori ez baita ene esku den zerbait, harekin plazer dudana egiteko; baina, hori hiri isildu eta hire emazteari adieraziko banio diokedan amodioa erakusteagatik, sekulan izan den lagunik makurrena nindukek. Ene aldetik, segurtatzen diat ezen, emazte on eta onesta izanik ere, eta hire emaztea ez balitz ere, ez litzaiokeela sekulan ene fantasia nehoi adreztatuko halako pertsona bati bezain guti. Baina, eta nahiz batere motiborik ez egon, galdegiten diat, goganbeharririk den mendrena ukanez gero, erran diezadaan, eta, hala, ezarriko diat nik moldea hainbertze iraun duen gure adiskidetasuna ez dadin hauts emazteki baten kariaz.

³⁹ Ohikoa zen garai hartan, eta areago bidaian zirela, ohea hiruzpalauren artean partekatzea. (I. O.)

Izan ere, munduko bertze deus baino maiteago banu ere, ez niokek sekulan adieraziko, nahiago baitut hire ohorea bertze zernahi baino.

Lagunak zin ahala zin egin zion ezen ez zuela sekulan halakorik pentsatu, eta otoiz galdatu zion ohi bezala joka zezan beraren etxean handik aitzina ere. Bertzeak ihardetsi zion:

—Hala eginen diat, baina, otoi eta otoi, nehoiz goganbehar bahendi, edo enegan makurrik kausi eta disimula bahiezat, ez nauk sekulan gehiago geldituko hire konpainian.

Biak usaian bezala bizi izan ziren denbora batez, baina, haren buruan, zaldun esposatua goganbehartzen hasi zitzaion berriz ere, sekulan baino gehiago, eta manatu zion emazteari ez zezan gizona errezibi gehiago errezibitzen ohi zuen maneran. Hark senarraren lagunari erran zion, eta orobat galdatu zion ez mintzatzeko gehiago berari, ber manua hartua zuelako berak ere zaldunaz zenaz bezainbatean. Zaldunak, entelegatuz, emaztearen hitzez eta haren senarrari ikusten zizkion jokamolde zenbaitez, ez zuela hark bete eman hitza, erran zion lagunari, biziki koleraturik:

—Jeloskor bahaiz, adiskidea, naturala duk; baina, zin egin dizkidaan zin eginik, ezin nauk kontent egon, ikusirik hain gordean atxiki didaala, zeren beti pentsatu ukan baitut gure bihotzen artean ez zela ez artekarik ez behaztopa bakar batto ere. Baina, dolu handiz, eta ene aldetik hobetik ez dela, kontrakoa ikusten diat, zeren ez baita soilik biziki jelos haizela hire emazteaz eta nihaurez, ezpada isildu egin nahi didaala, eta, horrela, hire eri hori hain duk luzatuko denboran, ezen herra bilakatuko baita guziz; eta gure mendean ezagutu dugun amodiorik handiena izan den hau etsaigorik hilgarriena bihurtuko duk. Eginahalak egin ditiat behaztopa hori gainditzeko, baina, hain gaiztotzat eta hiretako beti izan naizena ez bezalakotzat naukaanez, hitzematen eta zin egiten diat hartzen nauen hori bezalakoa izanen natzaiala, eta ez naizela geldituko harik eta hire emaztearengandik ukan arte harengandik erdietsi nahi dudala uste duan hori; kasu emak, bada, hemendik aitzina, zeren, goganbeharrak bereizi hauenez ene adiskidetasunetik, despitak bereiziko bainau ni hiretik.

Eta, lagunak kontrakoa sinetsarazi nahi ukan bazion ere, ez zion gehiago bertze deus sinetsi, eta altzari eta ontasunen bere parte erretiratu zuen, baltsan baitzeuzkaten guziak. Eta haien bihotzak baturik egonak ziren bezain bereiz gelditu ziren, halako maneran, non zaldun esposatu gabeak ez baitzuen amore eman harik eta, hitzemanen zuen bezala, laguna adardundu zuen arte.

«Eta hori gertatzen ahal zaie, ene andereok, beren emazteez makurrean goganbehartzen direnei. Izan ere, zenbait gizonen, direla uste duten hura bihurrazten baitituzte emazteak, emazte on bat aiseago bentzutzen baitu etsimendu batek munduko plazer orok baino. Eta, goganbeharra amodioa dela dioenari, nik diotsat ezetz, zeren, nahiz eta amodiotik etorri nola hautsa sutik, halaber baitu hura hiltzen».

«Ene iduriko —erran zuen Hircanek—, ez da nehola ere desplazatzen handiagorik, ez emazteendako ez gizonendako, ez direna direla uste ukaitea baino. Eta, nitaz denaz bezainbatean, ez dit deusek ene adiskideen konpainia hautsarazten halako goganbehar batek baino aiseago».

«Ez da, ordea, arrazoizko desenkusa emazte batendako —erran zuen Oisillek— senarraren goganbeharraz mendekatzea bere lotsaren gain; hori, gizon batek, bere etsaia hil ezin duela-eta, ezpata bere gorputzean sartuko balu bezala da, edo, karramixkatu ezin duela-eta, bere hatzak ausikiko balitu bezala. Hobe zukeen emakume hark senarraren lagunari sekulan mintzatu izan ez balitzaio, eta erakutsi hala senarrari makurrean zela beraz goganbeharturik, denborak jabaldu baitzituzkeen bi-biak».

«Ordea, bihotzez egin zuen —erran zuen Ennasuitek—, eta, emazteki anitzek horrela joka baleza, haien senarrak ez lirateke diren bezain ozarrak».

«Nolanahi den —erran zuen Longarinek—, pazientziak egiten du hondarrean emaztea garaitzaile, eta kastitateak laudagarri; horri atxiki behar gintzaizkioke».

«Halarik ere —erran zuen Ennasuitek—, aise galtzen ahal du emazte batek kastitatea bekaturik egin gabe».

«Nola konprenitu behar da hori? —erran zuen Oisillek».

«Bertze bat hartzen duelarik senarra duelakoan».

«Eta nor da hain ergela —erran zuen Parlamentek— senarraren eta bertze gizon baten arteko diferentzia ez ezagutzeko, bertze hori ezein beztimendaz desgisaturik delarik ere?».

«Izan dira guti batzuk —erran zuen Ennasuitek—, eta izanen dira oraino hala tronpatuak, eta, beraz, inozente eta hobengabeak diratekeenak».

«Halakoren bat ezagutzen baduzu—erran zuen Dagoucinek—, emanen dizut hitza haren berri eman diezaguzun, guziz estrainioa kausitzen baitut inozentzia eta bekatua betan izan ahal izatea».

«Entzun, bada, ene andereok —erran zuen Ennasuitek—, aitzineko istorioen bidez ikasi ez baldin baduzue oraino zein perilos izaten ahal den norbere etxean aloitzea emazteoi mundukoi erraten diguten horiek, beren buruak saindutzat eta gu baino duinagotzat dituzten horiek. Bertze etsenplu bat eman nahi nizueke orain, ikus dezazuen zein makurretan erortzen ohi diren haietaz hain maiz fidatzen direnak, eta zuen begien aitzin paratu nahi nizekizueke, erakusteko ez direla ez soilik bertzeak baino gizon hobeak, ezpada badutela beren baitan zerbait deabruzko, gizonen malezia ohikotik haratagokoa, istorio honetan entzunen duzuen bezala».

BERROGEITA ZORTZIGARREN ISTORIAO

Bi kordelier aloiturik zeuden ostaleria batean, zeinetan alabaren ezteiak ospatzen ari baitziren, eta haietarik zaharren eta maleziatsuena, ikusi zuelarik emaztegaia handik hastantzera zihoazela, han joan zen senargaiaren lekua hartzerat, hura lagunartean dantzan zebilen bizkitartean.

Perigort⁴⁰ aldeko herri bateko ostaleria batean, hango alaba baten ezteiak ospatu ziren, eta ahaide eta adiskideak oro entseatu ziren ahalik eta errezibitzerik onena egiten. Eztei egunean, arribatu ziren harat bi kordelier, eta beren ganberan eman zieten afaria, ez baitzen egokia haien kondizioa ezteian parte hartzeko. Baina bietarik nagusi zenak, autoritate eta malezia handiagoa baitzuen, pentsatu zuen ezen, mahaitik hasandu zituztenez, ohean zuela berak parte hartuko, eta bere ofiziokoa zuen finezietarik bat eginen ziela. Eta, arratsa heldu eta dantzan hasi zirelarik, kordelierra luzaz egon zitzaion beha emaztegaiari leiho batetik, eta biziki ederra eta gogokoa kausitu zuen. Eta ganberazainei galdez ibili zen, artoski, ea zein ganberatan oheratuko zen hura, eta ikasi zuen berearen kantukoan zela; biziki loriatu zuen horrek, eta hain ongi egin zion zelata bere xedea erdiesteko, ezen ikusi baitzuen emaztegaia handik hastantzera zihoazela, atsoek eramana, ohi bezala⁴¹. Biziki goiz zenez, senargaiak ez zuen dantza utzi nahi ukan: hain zuen gogokoa, ezen emaztea ahantzia zuela iduri baitzuen; kordelierrak ez bezala, zeren hura, ez ahal zuen entzun emaztegaia oheratua zela, abitu grisa erauntzi eta han joan baitzitzaion senarraren lekua hartzerat. Baina, atzemanen zuten beldur, hagitz denbora laburrez gelditu zen lekuan, eta laguna berarendako zelata eginean zeukan pasabide baten bururaino joan zen, non hark aditzerat eman baitzion keinuz senarra dantzan zebilela oraino. Kordelierra, zeinak ez baitzuen bururatua bere lohikeria gaiztoa, emaztegaiarekin oheratzera itzuli zen berriz, harik eta lagunak keinua egin zion arte tenorea zutela handik lekutzeko. Jin zen senargaia oherat, eta, emaztea —hain zuen tormentatua kordelierrak, non pausua baizik ez baitzuen behar—, ezin izan zen gelditu erran gabe:

—Zer deliberatu duzu, batere lorik ez egin eta ni tai gabe tormentatzea?

Gaizo senarra, zeina heldu berri baitzen, balditurik gelditu zen guziz, eta galdatu zion ea zer tormentu eragin zion, bada, bera ez baitzen dantzalekutik urrundu.

—Bai ongi dantzatu ere —erran zuen neska gaixoak—, heren aldia baituzu oherat jiten zarena; hobe zenuke lo egitea, hala iduri zait.

Hitz haiek entzunik, guziz eta biziki estonaturik gelditu zen senarra, eta gauzak oro ahantzi zituen egitate haren egia entzuteagatik. Eta, emaztegaiak guzia kontatu ziolarik, han aloiturik zeuden kordelier haietaz goganbehartu zen. Berehala, ohatzetik jaiki eta haien ganberarat joan zen, berenaren kantu-kantukoa baitzen. Eta, kausitu ez zituelarik, hasi zen oihuz eta helka, hain azkarki, ezen lagun guziak bilarazi baitzituen harat, eta haiek, agitu zenaren berri entzunik, lagundu zuten, kandela eta linternaz, eta herriko zakur guziak harturik, kordelierraren bila. Eta, etxe barnean ediren ez zituztenez, biziki zalu ibili ziren eta mahastian atzeman zituzten. Eta merezi zuten bezala

⁴⁰ Egungo Périgord. (I. O.)

⁴¹ Emazte ezkonberria adineko emakumeek eraman ohi zuten, festa amaitu aurretik, eztei ganberara, non eztei gauerako prestatzen baitzuten; senargaia ez zen bertara azalduko beranduxeago arte. (I. O.)

erabili zituzten, zeren, ongi umatu ondoan, besoak eta zangoak moztu baitzizkieten, eta han utzi, mahasti barnean, Bako eta Venus jainko-jainkosen esku⁴², zeinen dizipulu hobeak baitziren San Frantziskorenak⁴³ baino.

«Ez zaitezte estona, ene andereok, gure ohiko bizimoldetik kanpo diren horiek menturazaleak⁴⁴ ere lotsatuko lituzketenak egiten dituztela ikusirik. Baldi zaitezte, ordea, ikusirik ez dutela makurrago jokatzeko Jainkoak eskua erretiratzen dienean; izan ere, hain da urrun abitua fraidea fraidetzetik, ezen ardura harrokeriaz suntsitzen baitu. Eta, nitaz denaz bezainbatean, Done Jakueren erlijioari natxekio⁴⁵: bihotza Jainkoari beha ukan, puru eta garbi, eta karitatea egitea ahal guziaz hurko lagunari».

«Ene Jauna —erran zuen Oisillek—, ez ahal dugu sekulan finituko kordelier nardagarri horiekin!».

Ennasuitek erran zuen:

«Damak, printzeak eta zaldunak ez baldin baditugu nehola ere gupidesten, iduri zait ohore handia dutela kordelierrekin, haietaz mintzatzea onesten dugunez; izan ere, hain dira ezdeus, ezen, ez balezate zer oroigarri egin, ez bailitzateke sekulan nehor haietaz mintzatuko; eta erraten ohi da ezen hobe dela gaizki egitea deus ez egitea baino. Eta hainbat ederragoa izanen da gure buketa⁴⁶, zenbat beteago egon gauza diferentez».

«Hitzematen baldin badidazue ez zatzaizkidatela neholere haserretuko —erran zuen Hircanek—, kontatuko dizuet dama batena, zeina hain zen ahalkegarria, non gure kordelier gaixoa desenkusatuko baituzue premia zuena ahal ukan zuen lekutik hartu izanaz, ikusirik zein malezia handiz bilatzen zuen bere gozagailua jateko aski zeukan dama hark».

«Egia erratea juratu dugunez —erran zuen Oisillek—, orobat egin dugu entzutea. Libertatez mintzatzen ahal zara, beraz, zeren gizon-emakumez erraten ditugun gauza txarrak ez baitira bereziki istorioan azaltzen diren horien ahalkerako, ezpada kreaturen baitan dugun konfiantza edekitzeko, datxezkien miseriak erakutsiz, iraun dezan gure esperantzak eta berma dadin perfektua den bakar Haren baitan, zeina gabe gizon-emazte oro baita imperfekzio».

«Beraz —erran zuen Hircanek—, beldurrik gabe kontatuko dut ene istorioa».

⁴² Fraideok Ardoaren jainko Bakoren eta Amodioaren jainkosa Venusen zaintzapean utzi zituzten, beraz, mozkor eta lizunzaletzat zeuzkatenez. (I. O.)

⁴³ Kordelieren, hots, frantziskotarren fundatzailea. (I. O.)

⁴⁴ Hala esaten bide zitzairen bide-lapurrei, mertzenarioei. (I. O.)

⁴⁵ Jakueren epistola (1, 27): «Jainko Aitaren aurrean benetan garbi eta akats gabeko erlijioa hauze da: umezurtz eta alargunei beren premietan laguntzea eta munduko gaiztakeriarekin nork bere burua ez kutsatzea». (I. O.)

⁴⁶ Istorio sortaz ari da, inondik ere. (I. O.)

BERROGEITA BEDERATZIGARREN ISTORIOA

Zaldun frantses batzuk, ikusiz beren jaun Errege hagitz ongi tratatzen zuela maite zuen atzerriko kondesa batek, menturatu ziren emakumearekin mintzatzerat eta pertsekutatzen hasi ziren, halako maneran, ezen erdietsi baitzuten, batak bertzearen ondotik, galdatzen zuten hura, batbederak pentsatuz berarendako soilik zeukala emakumeak bertze guziek ere parte zuten grazia hura. Eta, deskubritu zuelarik haietarik batek zer gertatzen zen, hartu zuten guzien artean emazteki hartaz mendekatzeko deliberoa; baina, planta onez eta lehenago bezain begitarte atseginez hartu zituenenez, berekin eraman zuten hari pasarazi nahi zioten lotsa.

Bazen, Karlos⁴⁷ erregearen gortean, eta ez dut zehatz erranen zenbatgarrena mintzatu nahi naizen emaztekiaren ohoretan, haren izena ere ez baitut aipatu nahi, biziki etxe oneko kondesa bat, kanpotarra ordea. Eta, berrikuntza oro gogokoa izan ohi denez, dama horri, jin zelarik, jende orok behatzen zion, nahiz jaunzten zituen arropen berritasunagatik, nahiz haien aberastasunagatik. Eta, ez izanagatik ederrenetarik, bazuen halako grazia bat, bai eta ausartzia ere, eta hain handia hura, ezen ezin baitzen areagokoa izan, eta ber gauza haren elea eta orobat seriotasuna, non ez baitzen nehor hari mintzatzerat hurbiltzeko beldur ez zenik, ezpada Errege, zeinak biziki maite baitzuen. Eta, harekin bakarreanago solastatzeagatik, igorri zuen senarra mandatuz, eta luzaz egon zen hura kanpoan eginbide hartan; anartean, biziki ongi errezipitzen zuen Erregek haren anderea. Erregeren zenbait zaldun, jakin zutenenez beren jauna hain ongi tratatzen zuela, ausartu ziren damari mintzatzerat, eta, bertzeak bertze, bazen Astillon izeneko bat⁴⁸, biziki gizon ausarta eta grazia onekoa. Hastapenean, seriotasun handiz hartu zuen damak, Errege jaunari erranen ziola mehatxu eginez, eta beldurtzeko heinean izan zen zalduna; baina, ez zenez batere usatua halako kapitaintsa net ausart baten mehatxuen beldur izaten, fermu atxiki zion, eta hain hurbiletik jarraiki zitzaion, ezen damak bide eman baitzion berarekin bakarrean solastatzeko, beraren ganberarat nola etorri behar zuen erakutsiz. Ez zuen huts egin. Eta, Errege goganbehar ez zedin neholere, galdatu zion bidaian joateko baimendua. Eta partitu zen gortetik, baina, lehen egunean berean, zerbitzariak-eta utzi eta itzuli zen, gauez, kondesak eginak zizkion promesak errezipitzerat. Hark hitza atxiki zuen, eta gizona hain gelditu zen satisfos, ezen bospasei egunez loriaturik egon baitzen⁴⁹, kabinete batean zerraturik kanporat jalgi gabe, eta jakiz eta indargarriz baizik bizi ez zela. Gorderik egon zen zortzi egun horietan, haren lagun bat, Durassier izenekoa, jin zitzaion kondesari amodioa egiterat. Damak lehenari ezarriak zizkion ber moldeko kondizioak jarri zizkion amorante horri ere: hastapenean, hitz dorpe eta ozarrak egin zizkion, egunez egun eztituz zihoazenak; eta, heldu zelarik lehen presonerari joateko baimendua emateko eguna, amorante berria ezarri zuen haren lekuan. Eta, hura han zen bizkitartean, Valnebon izeneko

⁴⁷ Karlos VIII.a (1470-1498). (I. O.)

⁴⁸ Zaldunon izenak gardenak ziren istorio hauen entzule eta irakurleentzat: Astillon, Jacques de Chastillon litzateke, Erregeren txanbelan edo ganbera zalduna, 1512an hila, Ravennako setioan; Valnebon, Germain de Bonneval (Valnebon izena “Bonneval”-en anagrama da), Erregeren txanbelana bera ere, eta 1525ean hila, Pavian; Durassier, berriz, Jacques Galliot de Genouillac, Assier-eko jauna, geroago Languedoc-eko gobernari izandakoa, eta 1546an hil zena. (I. O.)

⁴⁹ Beste bertsio batzuetan zazpi edo zortzi egun aipatzen dira hor, eta, egia esan, batago datorke beheraxeago aipatzen den egun kopuruarekin. (I. O.)

haren bertze lagun batek egin zuen aitzineko biek eginaren iduriko bidea; eta haien gibeletik bertze bizpahiru jin ziren, presondegi goxo hartan parte hartzerat.

Bizimolde hark luzaz iraun zuen, eta hain finki gidatu zuen damak, non gizonetarik ezeinek ere ez baitzekien deus bertzeez. Eta guziek damari ematen zioten amodioari buruzko elerik entzun bazuten ere, batbederak pentsatzen zuen berak bakarrik erdiesten zuela galdatzen zion hura, eta lagunez trufatzen zen, huts egin zutelako halako grazia handi bat ukaiten. Gorago aipatu zaldunak oturuntza batean ziren egun batean, non asealdi ederra egiten ari baitziren, hasi ziren gerletan ukan mentura eta presondegiez solasean. Baina Valnebonek, kalte egiten baitzion ukan zuen bezain fortuna bikaina hain luzaz isildu beharrak, erran zien lagunei:

—Ez zekiat zein presondegitan egon zareten, baina, nitaz denaz bezainbatean, egon naizen bati diodan atxikimenduagatik, ene mende guzian laudatu eta goretsiko ditiat bertzeak oro; izan ere, iduri zaidak ez dela mundu honetan presoner izatearen pareko plazerik.

Astillonek, zeina presoneretan lehena izan baitzen, duda egin zuen hark erran nahi zuen presondegiaz, eta honela ihardetsi zion:

—Valnebon, zein presozaín edo presozaínsak tratatu hau hi hain ongi, hain maite ukaiteko presondegi hori?

Valnebonek erran zion:

—Zein ere baita presozaína, hain izan zitzaidaan atsegin presoaldi hura, ezen luzazago irautea nahi ukan bainukeen, ez bainaiz sekulan hobeki tratatua izan, ez eta kontentago egon ere.

Durassierrek, ele gutiko gizona baitzen, ongi jakinik bertzeek bezala berak ere parte hartu zuen presondegi hartaz ari zirela, erran zion Valneboni:

—Zer jakiz elikatzen hinduten, bada, presondegi horretan, halako laudorio ederrez apaintzeko?

—Zer jakiz? —erran zuen Valnebonek—: Erregek ere ez zeukak hoberik, ez eta indargarriagorik ere.

—Baina jakin nahi nitek orobat —erran zuen Durassierrek—: preso hindukan hark, irabazarazten al zian hire ogia?

Valnebon, duda baitzen ongi konprenitzen ari ote zitzazkion, ezin izan zen egon juratu gabe:

—Alajainkoa!, lagunak eduki ote ditut, bada, bakar-bakarrik nintzela uste nuen lekuan?

Astillonek, ikusiz disputa hura, zeinetan bera ere parte izana baitzen bertzeak bezala, erran zuen irriz:

—Nagusi bat eta bera diagu guk guziok!, gaztetik lagun eta adiskide garenok; horregatik, fortuna on batean lagun gertatu bagara, badiagu irri egiteko motiborik. Baina, pentsatzen ari naizena egia ote den jakiteko, galdatu eginen dizuet eta, otoi, guziok egia aitortzea nahi nitek, zeren, pentsatzen dudana gertatu baldin bazaigu, hain abentura plazenta lukek, ezen ezin kausituko bailitzateke halakorik hagitz urrun joanik ere.

Guziek zin egin zuten egia erranen zutela, auzia ezin ukatuzkoa baldin bazen. Eta Astillonek erran zien:

—Nik kontatuko dizuet eni zer gertatu zitzaidan, eta zuek erranen didazue zuei ere idurikoa gertatu zitzazuen, bai ala ez.

Akort egon ziren guziak, eta, orduan, erran zien:

—Erregeri baimendua galdatu nioan bidaian joateko.

Eta bertzeek arrapostu:

—Baita guk ere.

—Gortetik bi legoatara nengoela, zerbitzariak-eta utzi eta presoner sartzera joan ninduan.

Eta bertzeek arrapostu:

—Bertze horrenbertze egin genian guk ere.

—Han egon ninduan —erran zuen Astillonek— zazpi edo zortzi egunez, eta gabinete baten barnean egiten nian lo, non sekulan jan ditudan jaki eta indargarririk onenak baizik ez baitzizkidaten ematen jateko. Eta, zortzi egunen buruan, preso nindukatenek joatera utzi ninditean, heldu nintzelarik baino anitzez ahulago.

Guziek zin egin zuten horrela zitzaiela gertatu.

—Ene presoaldia —erran zuen Astillonek—, halako egunean hasi eta halakoan finitu zuan.

—Enea —erran zuen Durassierrek—, hirea finitu zen ber egunean hasi zuan, eta halako eguneraino luzatu.

Valnebon, pazientzia galduz, biraoz hasi zen, erranez:

—Jainkoa partel, ikusten ari naizenez, lehena eta bakarra nintzelakoan, herena nauk, zeren halako egunean sartu eta halakoan jalgi bainintzen.

Mahaian ziren bertze hirurek ere zin egin zuten herronkan jarriak zirela.

—Beraz —erran zuen Astillonek—, honetara ezkerro, erranen diat nik gure presozaitsaren kondizioa: ezkondua duk eta hagitz urrun dik senarra.

—Emazte bera duk —ihardetsi zuten bertze guziek.

—Hortaz, kalma gaitezen —erran zuen Astillonek—, eta, nihaiz izan nintzenez herronkan lehena, nihaiz izanen nauk orobat lehena hura izendatzen: ene andere kondesa duk, zeina hain duk ozarra, ezen, haren amodioa ukan nuelarik, iduri baitzitzaidan Cesar bera garaitu nuela.

—Deabruak daramala halako nekeak eman eta guhauren burua hura erdietsi ukanaz hain zoriontsutzat harrarazi digun ematxar hori! Ez duk sekulan izan hain emazte gaiztorik, zeren bat gordean zeukala bertzearekin aritzen baitzen, eta, hala, ez zuan nehoiz gelditzen denbora-pasarik gabe; nahiago nitek hilik egon, hura gaztigurik gabe gelditzea baino!

Zer zigor merezi zuela uste zuen galdatu zitzaion batbederari, eta denak akort eta prest egon ziren merezi zuen hura emateko.

—Iduri zidak —erran zuen Durassierrek— ezen gure jaun Erregeri erran behar geniokeela, jainkosatzat baitauka hark.

—Ez diagu horrelakorik eginen —erran zuen Astillonek—; badiagu aski molderik emakumeaz mendekua hartzeko, gure jauna deitzen ibili gabe. Elkar gaitezen bihar, hura mezarat doanean, eta gutarik batbederak eraman dezala burdinazko kate bat lepotik; eta, hura elizarat sartzean, eginen zioagu agur merezi bezala.

Hagitz ongi kausitu zuten guziek aholku hura, eta hornitu zen batbedera burdinazko kate batez. Goizean, han jin ziren denak beltzez jauntzirik, burdinazko kateak lepo inguruan zituztela

kolier gisan, kondesaren bila, hura elizarat zihoalarik. Eta, ez ahal zituen hark hala beztiturik ikusi, irriz hasi eta erran zien:

—Norat doaz jende hauek, horren doloros?

—Ene anderea —erran zuen Astillonek—, zu laguntzera gatozen presoner esklabo gaixoak gaituzu, zuri zerbitzu egiterat jinak.

Kondesak, deus konprenitzen ez zuelako alegia eginez, erran zien:

—Ez zarete nehondik ere ene presonerak, eta ez dut neholere entelegatzen zein motibo dukezuen eni zerbitzu egiteko bertze nornahik baino areago.

Aitzinatu zen Valnebon, eta erran zion:

—Zure ogitik hain luzaz jan baldin badugu, ongi eskergabeak gintzaizkizuke zerbitzurik egin ez bageniezazu.

Damak deus konprenitzen ez zuelako alegia egin zuen, hain ongi, ezen seriotasun hartaz balditurik utzi nahi baitzituen. Baina hain fermu jarraiki zitzaizkion haiek beren xedeari, non entelegatu baitzuen damak auzia agerian zela. Horregatik, berehala asmatu zuen gizonak tronpatzeko bidea, zeren ez baitzuen, ohorea eta kontzientzia galduak zituen hark, zaldun haiek pasarazi nahi zioteten lotsa nahi. Eta, bere plazera munduko ohore guzia baino maiteago duen emazteak nola, ez zien begitarte txarragorik egin, ez eta bisaia mudatu ere; eta hain gelditu ziren estonaturik guziak, non beren baitan eraman baitzuten gibelerat damari pasarazi nahi ukan zioten lotsa.

«Ene andereok, ez baduzue istorio hau kausitzen emazteak gizonak bezain tzarrak direla ezagutarazteko moldekoa, bilatuko ditut bertze batzuk zuei kontatzeko; nolanahi den, iduri zait ezen kontatu berri dizuedana aski dela erakusteko lotsa galdu duen emazte bat milatan ausartagoa dela malizia egiten gizon bat baino».

Ez zen egon konpainian emazterik, istorio hau entzun eta gurutzearen seinaleak egiten hasi ez zenik, hainbertze, non iduri baitzuen infernuko deabru guziak zekuskitela begien aitzin. Baina Oisillek erran zien:

«Ene andereok, umilia gaitezen kasu izugarri hau entzunik, Jainkoak abandonatu pertsona, izan ere, harekin bildu denaren pareko bihurtzen da, zeren, Jainkoari atxikitzen zaionak haren izpiritua bere baitan gordetzen duenez, orobat gertatzen baitzaio haren kontrakoari atxikitzen zaionari; eta ez da deus basagorik Jainkoaren izpirituaz gabetua baino».

«Gaizo dama hark egin zuena eginik ere —erran zuen Ennasuitek—, ez nituzke nik goretsiko beren presondegiak espantuz aritu ziren haiek».

«Daukat ezen, gizon batendako —erran zuen Longarinek—, ez dela neke ttipiagoa bere fortuna ona isiltzea ezen ez haren gibeletik ibiltzea, zeren ez baita ihizi-eraikitailerik⁵⁰ harrapakina ukan eta adarra jo arteko onik ez duenik, ez eta amoranterik ere erdietsi garaitiaren loriaz plazer hartzen ez duenik».

«Horra iritzi bat —erran zuen Simontaultek—, zeina heretikotzat hartuko bainuke fedearen inkisidore guzien aitzinean, goaitatsuetan gehiago baitira gizonak emazteak baino; eta ongi dakit edirenen genituzkeela nahiago luketenak batere errezibitze onik gabe gelditu, munduko nehork

⁵⁰ Ehiza altxarazi edo dagoen tokitik mugiarazten duena, ehiztariak bota dezan. (I. O.)

jakin lezan baino. Eta, hortakotz, Elizak, ama on gisan, gizonak ordenatzen ditu apez kofesor eta ez emazteak, azken horiek ezin baitute deus atxiki gordean».

«Ez da horregatik —erran zuen Oisillek—, ezpada emazteek, hain dira bizioaren etsai, ez luketelako gizonak bezain aise emanen absoluzioa, eta zorrotzagoak liratekeelako eraginen lituzketen penitentzietan».

«Horren zorrotzak balira —erran zuen Dagoucinek—, nola baitira beren arrapostuetan, bekatari gehiago etsiaraziko lukete salbamendurantz erakarriko lituzketenak baino; horregatik, Elizak ongi hartu ditu horiek guziak gogoan. Ez ditut, ordea, horrekin desenkusatu nahi beren presondegiak manera hartan espantuz aritu ziren gizon haiek, sekulan ez baita emazteez gaizki erran duen gizonik ohoratu».

«Guzion auzia zenez —erran zuen Hircanek—, iduri zait ongi egiten zutela elkar kontsolatzen».

«Baina ez zuketen sekulan aitortu behar —erran zuen Geburonek—, beren ohoreagatik beragatik. Izan ere, ikasia dugu, Mahai Biribileko liburuetan, ez dela batere ohoragarria zaldun batendako deus ere balio ez duen bertze bat bentzutzea».

«Ni harritzen nau —erran zuen Longarinek— gaizo emakume hura bere presoneren aitzinean lotsaz ez hiltzeak».

«Lotsa galdu duten emazteek —erran zuen Oisillek— neke handiz kobratuko⁵¹ dute berriz sekulan, ez baldin bada amodio handi batek ahantzarazi diena. Halakoak hainbat ikusi ukan ditut itzulian».

«Ene iduriko —erran zuen Hircanek—, joan ziren haiek ikusi dituzu zuk itzulian, zeren nekea baita emazteki baten baitan amodio handirik kausitzea».

«Ez nauzu zure iritziko —erran zuen Longarinek—, erranen bainuke badirela herioraino maite ukan duten emakumeak».

«Hain gogoz naukazu istorio hori entzuteko —erran zuen Hircanek—, ezen hitza uzten baitizut, ikas dezadan hala emazteen baitan ene iduriko sekulan izan ez den amodio horren berri».

«Beraz —erran zuen Longarinek—, entzuten baldin baduzu, sinetsiko duzu ez dela amodioa baino pasio azkarragorik. Baina, bizi honetan kontentamendu zerbait irabazteagatik, kasik ezinezkoak diren gauzak erdietsarazten dituen ber moldean, orobat eramaten du etsimendurat, bertze ezein pasiok baino areago, bere desira betetzeko esperantza galtzen duen gizon edo emaztea, istorio honetan ikusiko duzuen bezala».

⁵¹ Berreskuratuko. (I. O.)

BERROGEITA HAMARGARREN ISTORIOA

Jaun Jean Pierre luzaz ibili zen alferretan auzoko emazte baten gibeletik, zeinak itsutua baitzeukan osoki. Eta, zuen fantasia hura nolabait ahanzteko, haren ikusmenetik hasandu zen egun batzuez, eta halako malenkonია handiak akometatu zuen, non medikuek sangratze bat egiteko manatu baitzioten. Damak, bai baitzekien nondik sortua zen gaitz hura, bizia salbatu nahian heriotza aitzinatu zion, eman ziolarik beti errefusatu ukan zion hura; gero, bera zatekeenez hain adiskide betegina galdu ukanaren kausa, bere buruari ezpata ukaldi bat eman eta han joan zitzaion fortunari lagun egitera zaldunari.

Ez du aspaldi bazela, Cremonneko hirian⁵², jaun Jehan Pietre⁵³ izeneko zaldun bat, luzaz maite ukana zuena beraren etxetik hurbil bizi zen dama bat; baina, hura lasterkatzen eginahalak eginagatik, ezin zuen harengandik erdietsi iguriki zuen ihardespena, nahiz eta emakumeak bihotz-bihotzez maite zuen. Eta hain zegoen, hortaz, enoaturik eta samurturik gaizo zalduna, non bizitegirat erretiratu baitzen, deliberatuz ez zitzaiola gehiago alferretan jarraikiko ongi hari, gibeletik ibiltzeak bizia higatzen baitzion. Eta, fantasia hura gainetik erauzi nahirik, egon zen egun batzuez dama ikusi gabe, eta halako tristezian erori zen, non begitartez ere ezin baitzen ezagutu. Ahaideek medikuak jinarazi zituzten, eta haiek, ikusiz bisaia horitzen ari zitzaiola, estimatu zuten gibeletik buxadura bat zatekeela, eta sangratze bat egiteko manatu zioten. Halako gogor itxurak egina zen dama hark, ongi zekienez gaitz hura beraren errefusak soilik sorrarazia zela, igorri zuen konfiantzazko atso bat gizonarenganat, eta manatu zion errateko ezen, ongi zekienez zion amodioa egiazkoa zela eta ez gezurrezkoa, deliberatua zela hain denbora luzean errefusatu zion hura ematerat. Emakumeak bilatua zuen modua bizitegitik jalgi eta leku batean gizonarekin bakarrean egon ahal izateko. Zalduna, zeina goizean sangratua baitzuten besotik, hobeki sendaturik kausitu zen hitz haiengatik hartzen ahal zuen ezein botika edo sangratzerengatik baino. Eta arrapostu igorri zion damari ezen ez zuela neholere huts eginen, eta han izanen zela damak manatu tenorean; eta mirakulu nabarmena egina zuela, zeren hitz bakar batez sendatua baitzuen gizon bat, ezein medikuk erremediorik kausitzen ez ziona. Hainbertze desiratua zuen arratsa heldu zelarik, han joan zen zalduna errana zioten lekurat, hain bozkario ezin gehiago handiz, ezen baitzepadakoa baitzen hura berehala finitu beharra, ezinezkoa zelako handitzea. Eta, heldu bezain laster, han presentatu zitzaion bere arima baino gehiago maite zuen hura. Ez zuen denbora galdu eleketa alferretan, zeren barnea erretzen zion suak lehiaz mugiarazten baitzuen bere ahalean zeukala doi-doia sinesten ahal zuen haren gibeletik. Eta, amodioz eta plazerez behar baino hordiago zela, alde batetik zebilelarik biziaren erremedioaren xerka, herioaren aitzinamendua erakarri zuen bertzetik, zeren, bere burua ahantziz maiteagatik, ez baitzen ohartu besoko loturak askatzen ari zitzaizkiola, eta, zauri berritik, ireki egin baitzitzaion, odola galtzen hasi zen, hainbertze, non guziz istildurik gelditu baitzen. Baina, akidura hura egin gehiegikeriei zor zitzaiera uste ukanik, bere bizitegirat itzultzeraz presatu zen. Orduan, Amodiok, zeinak biziki estu bilduak baitzituen biak, maiteagandik hasantzen ari zelarik arima hastanarazi zuen gizonaren gorputzetik; izan ere, hain zen joria odol isuria, ezen hil-hilik erori baitzen bere damaren oinetarat. Hura senetik kanpo zegoen, hain zen

⁵² Egungo Cremona, Lombardian (Italia). (I. O.)

⁵³ (*sic*), nahiz eta goiko laburpenean “Jean Pierre” izenez aipatu den. (I. O.)

balditurik, estimatuz berak eragin zuela horren adiskide beteginaren galtzea, bera zela haren heriotzaren kausa bakarra. Bertzalde, ohartuz nolako dolua eta lotsa gelditu zitzaizkiokeen gorputz hil hura etxean kausitzen bazuten, auzia isiltzeagatik hilotza hartu eta, konfiantzazko ganberazain baten eta bien artean, kalerat atera zuten; han bakarrik utzi nahi ez, ordea, eta haren fortunarekin bat egin nahi ukan zuen, bere bihotza, egin kalte guziaren hobendun zena, zigortuz: hilaren ezpata hartu eta ukaldi batez trebesatu zuen, eta han erori zen hilik damaren gorputza maitearenaren gainean. Neska haren aita-amek kausitu zuten, goizean etxetik jaigotzean, ikuskari penagarri hura, eta, kasuak merezi bezalako dolua egin ondoan, bata bertzearen kantuan ehortzi zituzten.

«Hor ikusten ahal duzue, ene andereok, amodiozko gehiegikeria batek bertze malur bat ekartzen ohi duela».

«Gogokoa dut, hara! —erran zuen Simontaultek—, amodioa hain delarik pareko, bata hilez gero bertzeak gehiago bizi nahi ez ukaitea. Eta, Jainkoak halako emazte bat edireteko grazia egin ukan baliezat, erranen nuke sekulan nehork ez zukeela nik bezain beteki maite ukan».

«Bada, nik erranen nuke —erran zuen Parlamentek— ezen amodioak ez zintuzkeela itsutu zaldun hura bezala, eta hark baino hobeki begiratu zenukeela besoko lotura; zeren joanak baitira gizonek damengatik bizia ahanzten zuten sasoiak».

«Ordea, ez dira joanak —erran zuen Simontaultek— damek amoranteen biziak beren plazerarengatik ahanzten dituztenak».

«Daukat —erran zuen Ennasuitek— ezen ez dagoela munduan emaztekirik gizon baten heriotzagatik plazer hartzen duenik, ezta etsaia badu ere. Nolanahi den, gizonek beren buruaz bertze egin nahi badute, ezin dituzte damek horretarik begiratu».

«Alabaina —erran zuen Saffredentek—, gosez hiltzen ari den pobreaki ogia ukatzen dion emakumea hartzen da hiltzailetzat⁵⁴».

«Zuen galdeak premian den pobrearenak bezain arrazoizkoak balira —erran zuen Oisillek—, arras krudelak lirateke damak halakorik errefusatzeko; baina, Jainkoari esker, eri horrek ez ditu hiltzen urte barnean hiltzekoak direnak baizik».

«Ez dut nehola ere uste, ene anderea —erran zuen Saffredentek—, bertze guziak ahanztarazten dituen hura baino eri larriagorik badenik, zeren, amodioa azkarra delarik, ez baita ez bertze ogirik ez bertze jakirik maite den emakumearen soa eta mintzoa baizik».

«Barur utziko bazintuzte —erran zuen Oisillek—, bertze ezein jakirik gabe, ez al zenuke bertze zerbaite erranen?».

«Aitortzen dizut —erran zuen gizonak—, gorputza alditxartzen ahal litzateke, baina bihotza eta borondatea ez».

«Orduan —erran zuen Parlamentek—, mesede handia egin dizu Jainkoak hain kontentamendu guti duzun lekutat⁵⁵ adreztatu zaituelarik, non jan-edanez bizkortu beharra ukaiten

⁵⁴ San Joanek lehen gutunean (3, 15-18) dioena ezartzen ari zaio hor Saffredent damari, metaforikoki: «Bere senideari gorroto diona giza hiltzaile da, eta badakizue giza hiltzaileak bere baitan betiko bizirik ez duena. Maitasuna zer den, Kristok gure alde bizia eman duelako jakin dugu. Guk ere senideen alde behar dugu geure bizia eman. Norbaitek lur honetako ondasunak baditu eta, bere senidea premian ikusirik, ez badio errukiz laguntzen, nola izan dezake bere baitan Jainkoaren maitasunik?» (I. O.)

⁵⁵ Lausoki bada ere, horko *leku* horrek maite den pertsona adierazten du. (I. O.)

ohi baituzu; izan ere, iduri zait ezen hain kitatzen zarela ongi, non Jainkoa goretsi behar baituzu halako krudeltasun ezia eman dizulako».

«Hain nago tormentuz elikaturik —erran zuen Saffredentek—, ezen hasirik bainago bertze batzuk pleinitzen diren gaitzengatik ene burua estimatzen!».

«Agian da —erran zuen Longarinek— zure pleinuak gibelatu egiten zaituela konpainia honetarik, zeinetan arraitasunak ongi etorri bihurtuko baitzintuzke; zeren ez baitago deus nardagarriagorik amorante dorpe bat baizik».

«Orobat dama krudel bat! —erran zuen Simontaultek».

«Ongi dakusat ezen —erran zuen Oisillek—, Simontaulten arrazoiak bururaino entzun nahi baditugu, hunkitzen baitzaio kasua, bezperen orde konpletekin⁵⁶ egingen dugula enkontru; horregatik, goazen Jainkoa goresterat, eguna disputa handiagorik gabe eman dugu eta».

Oisille hasi zen lehena zutitzen, eta bertze guziak gibeletik joan zitzaizkion. Baina Simontault eta Longarine eskatimari jarraiki zitzaizkion guziz eztiki eta, ezpata atera gabe, Simontault nagusitu zen, erakutsiz pasiorik azkarrenetik datorrela premiarik handiena. Eta haiek erranik sartu ziren elizarat, non beha baitzeuzkaten fraideak. Bezperak entzunik, afaltzerat joan ziren, jakiz bezainbat hitzez, zeren haien arteko auziek mahaira egon ziren bizkitartean iraun baitzuten, arratsean hasi eta Oisillek izpirituak pausatzeraz joateko tenore egokia zutela adierazi zien arteraino, erranez anartean eman zituzten bortz egun haiek beterik zeudela hain istorio ederrez, non beldur baitzen seigarrena ez ote zen ber heinekoa izanen; ez baitzen posible, asmatzen hasirik ere, konpainia hartan kontatuak izan ziren egiazko istorio haiek baino hobeak izatea. Baina Geburonek erran zion ezen mundua mundu deino izanen direla oroitzea mereziko duten kasuak:

«Zeren gizon gaiztoen malezia beti izanen baita izan den bezalakoa, eta orobat izanen da onen onezia. Malezia eta onezia lurrean nagusi diren anartean, egitate berriek beteko dute hura beti, eskribiturik baldin badago ere ez dela deus berririk eguzkipean⁵⁷. Baina guk, ez baikara Jainkoaren baitako kontseilu pribatuko kide⁵⁸, ez dakigu gauzen hastapena zein den, eta iduri zaigu gauza berriak oro hagitz miragarri direla, eta, areago, guk egin nahi edo ahal ez genituzkeen heinean: horregatik, ez izan beldur heldu diren egunak ez ote diren joan direnak bezain onak izanen, eta pentsa dezala nork bere eginbidea nola bete xuxen».

Oisillek erran zuen Jainkoaganat hurbiltzera zihoala, eta haren izenean erraten ziela gau on. Eta hala erretiratu ziren guziak, horrela finituz borzgarren eguna.

Borzgarren egunaren azkena.

⁵⁶ Orduen liturgiako otoitzetan, konpletak eguneko azkena dira, iluntzean, bezperen ondoan esaten direnak. (I. O.)

⁵⁷ Bibliako Kohelet liburuko (1, 9-10) esaldi ezagunaren aipamena: «Gertatu zena gertatuko da berriro, lehen egina egingen da gero ere. Deus ez berririk eguzkipean. Zerbaitetaz hau esan baledi: “Horra, hori bai berria!”, horrelakoa ere gertatua da aurreko mendeetan». (I. O.)

⁵⁸ Bibliako Salmoak liburuan (1, 5) aipatzen den Zintzoen Batzarraz ari da, erregearen Kontseilu Pribatuarekin konparatuz, nolabait, adierazi nahian ezen, batzar horretako kide ez garenez, ez dugula Jainkoaren diseinu edo asmoen berri. (I. O.)